

INAKI ALKAIN

ANTONIO ZAVALA



Ā L K Ā I N

Ā I T Ā - S E M E Ā K

21



ALKAIN AITA-SEMEAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

91

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio
de S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 380 pezeta Atzerrian: 500 pezeta
Ongilleak: 600 " Ale bakarra: 50 "**

I. ALKAIN — A. ZAVALA

ALKAIN AITA-SEMEAK

AUSPOA LIBURUTEGIA
1970

© **Auspoa Liburutegia**
Tolosa (Guipuzcoa)

Depósito Leg. S. S. 216/70
IZARRA - Peña y Gofil, 13
San Sebastián - Marzo 1970

ARKIBIDEA

Itzaurrea 9

FERNANDO ALKAIN (1877-1960)

Berrasoeta	15
Lau bertsolari	23
Agintariak	28
Erretoreari	32
(1906) Bertso Berriyak	34
Urnieta'ko Mixioa	46
(1915) Bertso Berriyak	48
Jai-egunak	62
Txerri-tratua	67
Andoain'go Mixioa	70
Mendiz-mendi	73
Zenbait gertaera ta bertso	78
Lenengo Bertsolari-eguna	87
Txirritaren omenaldian	95
Txapelketaren biaramona	101
Naigabe bakarra	106

IÑAKI ALKAIN

Baserritarrak, erne	111
Bertso Berriyak maitasunari jarriyak ...	115
Bertso Berriyak euskerari jarriyak	118
Bertso Berriyak, Urnieta'ko Zilleri-mendien gaian jarriak	122
Xenpelar zanari	128
Aita zanari	132
Nere erriari	134

ITZAURREA

Alkain bertsolaria Urnieta'ko Berrasoe-ta baserrian jaio zan, 1877'garren urteko Maiatzaren 30'an, goizeko zortzi t'erdietan. Egunaren santuari zegokionez, Fernando jarri zioten izena.

Gurasoak izan zituan Jose Manuel Alkain eta Sebastiana Izagirre, biak urnietarrak.

Aitaren aldeko aiton-amonak: Inazio, Urnieta'koa, ta Josefa Usandizaga, Astea-su'koa. Amaren aldekoak: Jose Joakin, Urnieta'koa, ta Manuela Goikoetxea, Gaztelu'koa. (1)

Jaiotetxearen ate-buruan arma-arri eder bat dago. Arma-arriak dauka zugaitz bat, onen adar batetik zintzilik pertza, ta oñetan basurdea.

Bañan gogoangarriena, arma-arriaren

(1) Urnieta'ko bostgarren bataio-liburua, 128'garren orrian.

ertzean jira guzian latinez dagoana da:
*Post mortem feliciter vivit, qui dum vive-
ret iuste vixit.*

Euskeraz onela esango genduke: Eriotz ondoan zoriontsu bizi da, eriotz aurrean zuzen bizi izan dana.

Fernando senideetan gazteena izan zan, bañan seme bakarra. Aurretik zortzi arreba izan zituan.

Ogei ta amar urte zitularik, 1907'garren urteko Apirillaren 16'an, Maria Dolores Elozegi Artola'rekin ezkondu zan. Andregaiare ere Urnieta'koa zan, da ogei ta lau urte zituan. (2)

Lenengo kale-etxe batean jarri ziran bizi izaten; eta gero Berrasoeta'ra aldatu ziran.

Sei alaba ta bi seme izan zituzten: Soledad, Teresa, Elisabet, Miren, Edurne, Iñaki, Luken ta Karmen.

Emaztea gazterik il zitzaion, ogei ta amazapi urterekin.

Bera, berriz, 1960'garren urteko Apirillaren 26'an il zan, Donostia'n, alabaren etxean, *General Jáuregui* kaleko 9'garre-

(2) Urnieta'ko bigarren ezkontz-liburua, 218 ta 219'garren orri-aldietan.

nean, larogei ta iru urte osatzeko illabete ta lau egun falta zitularik.

* * *

Orain liburu au nola egiña dan esan nai nuke.

Aspalditik bilduta neuzkan Alkain'en bertsoak. Argitaratu-asmoak artu nituanean, aren seme-alabetara jo nuan.

Senide guzietan, Iñaki izan det berri-emale ugariena. Arritzekoa ere ez da, bera ere bertsolaria izanik.

Bertsolari guzien bizi-mugak beti ematen baititugu, Iñaki onen jaioteguna 1917'garren urteko Uztaillaren 6'garrena izan zala esan nai nuke.

Bertsoak bear zituzten argibideak, batzuk berak idatzi ditu, ta besteak berak poliki esan da guk sekretariotza egiñez kopiatuak dira. Ta era berean bere aitarengertararik jakingarrienakin.

Ta ala, liburu ontako *prosa* edo itz-lau guzia, Iñakirena da; ta bertsoak, berriz, aitarengertararik, lendik bilduta neuzkanak edo-ta Iñakik berak orain eman dizkidanak.

Ta, azkenik, liburuaren bigarren zatian, Iñakik bere denboran paperetan jarri izan dituan bertsoak dijoaz.

Orretxengatik, aita-semeen bertsoekin
osatua dalako alegia, liburu oni «Alkain
aita-semeak» izenburua eman diogu.

Irakurlearen gogokoa izango al da!

FERNANDO ALKAIN
(1877-1960)

BERRASOETA

Nere aita baserriko semea zan, eta bere senide artean gazteena, bañan seme bakarra, maiorazkua alegia.

Sasoietara iritxi zanean, bere gogozko andregaiia egin zuan, eta nungoa izango ta tabernakoa, bañan bere gogozkoa benetan.

Andik laister or jakin du bere aitak, eta bereala or eman dio izugarrizko errit-aldia, onela esanaz:

—Aizak i, semea: neri ez didakela tabernako emakumerik etxera ekarri! Ez diat utziko ta kanpora ezkondu bearko dek, ez beintzat etxe ontara!

Ala, nere aita zana, oiek danak entzunik, asi omen zan izkutuan ibiltzen bere gogozko andregai orrekin.

Eta iñular batez, eliz atzean zebiltzala, or ikusi ditu ospitaleko etxekoandre garai artan egiten zuan Joxepa Auxtiñak.

Neskazar sorgiña izan bear zuan oso, nere aitak esaten zidanez.

Aitaren arreba bat, Kristina izena zuana, egunero goizeko lenbiziko mezetara joaten omen zan, bañan baita ere Joxepa Austiña neskazar ura, ta biak elizatik irteeran or alkartu dira, ta onela dio ospitaleko etxeakoandre orrek nere aitaren arrebari:

—Aizan, i, Kristina: ez idanan esan zuen Perrandok andregaia utzi zuala?

Ta:

—Bai!

—Gezurra den ori!

—Zergatik bada?

—Neska, atzo iñulabarrean atzeko leioa ixtera joan iñunen, eta biak eliz atzean paseatzen zebiltzanan, nola elduta gañera!

Orduan arrebak, etxera joan zanean, bereala lenbiziko lana bere aitari esatea, ta, jakiña, beste errit-aldia bere aitak nere aitari.

Bañan egun batez, bazkalondoan omen zan, nere aita gurdi sagarrarekin erriko plazara, ta ospitaleko etxeakoandre ori bere atarian josten ari omen zan bere jantziak eta erropak, eta onela asi omen ziztaion:

—Perrando, orain ere ik badakarkik gauza! Motellak, zuen baserri ori aberatsa dek benetan!

Eta nere aitak orduan, bere ganaduai «Uo!» esanik, onela dio bere txapel txikia burutik kendurik:

—Au ere esan bear dizut, bada, Joxepa Auxtiña!

Ta, au esanda, bertso au bota zion:

Joxepa Auxtiña,
ara ordaña,
gaizki itzegiten
ai zera baña:
eunero elizan
erregu piña,
andik irtenda
betiko griña;
ai zer dotriña!
Beiratzen dizut
etsaiari aña,
kristau salserai
moztu mingaña! (1)

Oiek danak orrela izanik, nere aita zanak maitasun sutsua bere gogozko andereño arentzat izaki ordea. Ta, beste as-

(1) Bertso au Bilintxen "Juana Bixenta Olabe"-ren doñuan kantatzen da.

kotan bezela, nere aita zana gizon agertu zan. Bein emakume bati alkarganatzeko itza ematen dionean, gizasemeak gorde egin bear du.

Beiñepeñ iritzi zaio garaia, ta or esan dio bere aitari egun batez zer asmotan arkitzen zan, bañan ura len baño kaskalluago ta zakarrago. Nere aitak esaten omen zion:

—Kalean pizkorra dana, baserrian ere pizkorra izan diteke!

Bañan alperrik. Bere aitak onela erantzuten zion:

—Ik etxetik kanpora joan bearko dek, neska orrekin alkartu nai badek! Nik bi bei utziko dizkiat, eta billa zak bizi-lekua!

Onela izan zala esaten zidan nere aita zanak, eta dana egia dala badakit. Ni beintzat gaurko *Bar Antonio*'neko goiko bizitzan jaioa naiz, eta senide danetan gazteena da izena duan Berrasoeta baserri orretan jaioa; beste guziak kale gorrian.

Orduan etzan izango gaur añako txorakeri kalean. Geienak etxe utsak izango ziran. Bañan nolabait ere gure aitak mundura ekarri-azi giñuzen. Esker ugariak gurasoentzat!

Nere aitak bere aitari eman zion arrazoi sakona benetan: kalean pizkorra dana, baserrian ere pizkorra izan litekela. Zeñen egi aundia dan auxen! Onekin esan nai zion eginkizun batean pizkorra dana, bestean ere ez dala motela izango. Diru askoko emazte motela baño nik artu naiago nuke emazte pizkorra ta nere gogozkoa.

Gai onek merezi du bertso bat:

Emazte artze onek
badu komeria,
bere gogozkua da
munduan obia;
aberatsa izan da
txit lotsagabia,
naiago det garbia
eta langillia,
eta izan dezala
gorputz dotoria.

* * *

Nere aita, esan bezela, kalera ezkondurik, bere aitak bialduta, asi omen zan beste baserrietako esne-biltzeak egin da Donostia'ra eramaten.

Goizeko bere eginkizuna ori izaten

omen zuan, da arratsaldeetan inguruko baserrietara, zerbait irabaztearren, lanean laguntzera joaten zan.

Beiñepeñ, arratsalde batez, belar-meta egiten ari omen ziran Armotza baserrian. Ta, alako batean, trumoia entzun zuten, da meta ia bukaturik, bañan inguruan belarra palta.

Ta gure aitak, ura ikusirik, jetxi laguntzera, ta gero sardea metari sartu, bere ikullu-atxurra eskuetan zuala igotzen asi, metak zuan zuntoiari ikullu-atxurrarekin kolpe tira ta utsegin.

Ta orduan anka azpian zeukan sardea belar-metatik irten, ta bera sardearen gañera erori ta sabeletik sartu.

Bereala laixterka Donostia'ko klinika batera eraman zuten.

Danak uste zuten ura etzala bizirik aterako, esteak zazpi lekutan zulaturik zeuzkan da.

Leremboure deitzen zitzaion medikuak operatu zuan. Da amabost egunean, bere elizako ta beste lan guziak egiñik, ez omen zuan ezer edan eta ezer ez jan. Ta ala ere bizirik gelditu. Nunbait ere jenio gogorrekoa izan.

Ni ta beste bost geroztik jaiোক gera,

ta ez det uste buruko min aundirik izan degunik. Nere aita gogorra edo medikua oso ona. Bitatik bat...

* * *

Nere aitak Urnieta'ko kalean jarraitu zuan. Bañan, bere aita il zanean, ta bera nola baitzan senide arteko maiorazko bakarra, or agertu da baserriko nagusiagana.

Ordurarte urteko errenta zortzireun pezeta omen zituan Berrasoeta baserri orrek. Eta nere aitak or eskeñi dizka bi milla pezeta.

Ta orduan nagusiak, eskuarekin bizkarrara legun-legun igurtziaz, onela erantzun zion:

—Beste sei illabete barru zu baserrian zera, zuri tokatzen zaizu ta!

Onela esaten zizkidan nere aitak kontu auek, ni gazte nintzala.

Orduan nik ez nekian gauza auek nola izaten ziran; bañan geroago, pixka bat jantzi nintzanean, onela esaten nion aitari:

—Aita, lenago zortzireun pezta errenta ta zuri tokatzen baserria, maiorazko zi-

ñan bezela; zergatik, bada, orrenbeste eskeñi bear zenion nagusiari? Nere ustez oso tontoa izan ziñan!

Ta aitaren erantzuna auxen izaten zan:

—Egon adi ixilik! Neronek ere naiko damua bazeukat eta!

Onek esan nai du nere aitak bere jaiotetxeari maitasun aundienetako bat ziola; ta, gañera, baserritar berezkoa zala.

LAU BERTSOLARI

Esan bezela gure aita baserrian jaio ta bizitu zan ogei ta amar urtera arte.

Amazazpi urte zitularik, Amezqueta'ra ango San Bartolome festetara joan omen zan, gure baserrian neguan bere ardiekin izaten zan artzaiaren etxera.

Ordurako bertsolari azkarra zan, bañan gaztea; plaza-gizon artean egitekoa.

An zebillela, ostatu batean bertsotan asi omen zan. Eta Pello Errota zana beste ostatu batean izatea egokitu.

Or eraman dute nere aita Pello Errota-rengana. Pello an omen zegoan mai-buruan exerita, botill-patarra bere mende zeukala.

Ta or kantatu dio nere aitari, esanaz lasai-lasai erantzuna emateko, ta nere aitak, Pello Errota ikusirik, ausardirik ez.

Bañan, alako batez, lagunak bultzaka

baitzitan, or asi da bertsotan. Beren saioa eginda, oso lagun gelditu omen ziran.

Bañan neri onela esaten zidan aitak:

—Pello Errotari egun artan muturrik jirako zion bertsolaririk etzan!

Ta gero onela esaten zuan:

—Pello Errota ez uan zitala! Ura gizon on bat zan; bañan zirikatzen zuteanean, orduan gizatxartzen uan! Nere iritzian orrelakoa uan!

Nere aitak bein an Amezketa'n lotsak bota zituanean, andik aurrera asi omen zan inguru ontako errietan, bañan iñork ez omen zuan ikusi nolanai berriketan edo gaizki esaka. Neri onela esaten zidan:

—Bertsolariak bein ere ez dik gaizki esan bear! Ortan ziok grazi guzia!

* * *

Andik urte batzuetara or lagun egin da Prantzes-Txikia esaten zioten bertsolaria-
rekin.

Prantzes-Txikia ori gure baserrira beranduko ordutan askotan etorri oi izan du zan lo-lekua eskatzera.

Ta goizean-goiz, berandu oieratu arren, kafea artzera bereala esnatzen zan egun-sentian. Oso maitea zuan kafea. Bañan dirua atzeâ...

Gure aita asperturik zegoan berarekin. Batean beintzat or etorri da ate-joka goizeko lauretan. Gure aitak lenbiziko ate-jo-aldietan kasorik ez, eta onela zion Prantzes-Txikiak:

—Alkain, Alkain, iriki zak atea! Otzak amorratzen niok eta!

Nere aitak, biotz zabala izanik, jeiki, atea idiki ta lo egiteko lekua jarri zion. Ontan pazientzia aundia zuan.

Bein batez, Arantzazu'ra bertso tara biak joan bear, ta Prantzes-Txikiak dirurik ez eta nere aitak zazpi pezta bakarrik.

Egin dute beren egitekoa Arantzazu'n, jetxi dira Oñati'ra, ta zituzten diru pizarrak gastaturik, oñez etorri bear izandu zuten.

Bidean, Beasain'en, nere aitak ezagun aundi bat izan, da ari dirua kendu, tren artu ta etxera. Orrelako ibilketak kontatzen zituan nere aitak.

Nere ustez onek esan nai du garai artan etzutela ondo pagatzen bertsolaria, ezta fraileak ere.

Beiñepein, Frantzes-Txikiari gure base-
rrian lo-lekua utzi, goizean jeiki zanean
kafea, kopa ta bi pezta eman, da bialdu
zuan.

Geroztik, nola zor ori baitzuan, etzan
geiago azaldu...

* * *

Gazte nintzala, beiak jeizterakoan, nai
ta uste gabe, bertsoan kantari asten nin-
tzan, eta, jakiña, nere aita ta senideak
entzuten.

Orain baño eztarri ohea nuan; *baritono*
nintzala esaten zidaten.

Ala, egun batez, nere aita zana ingura-
tu ta eskeintzen dizkit bi liburu, onela
esanaz:

—Semea, ikusten diat erez bertsolari
atorrela, ta eldu bi liburu auk. Bat Bi-
lintxena dek, eta bestea Pedro Maria Ota-
ño'rena. Auk biak ikasten badituk, in-
guru ontako onena i izango aiz. Orain
nai dekena egin zak!

Ontan ere nere aitak arrazoi zuan. «Nai
dekena egin zak!» Ori da gizonak beti
alkarri egin bear giñiokena. Erakutsi bai,
baña ez beñere lepotik artu esanaz: Ik

nai badek eta ez badek, au ta ura egin bear dek! Nere iritzian auxen da gizonak egiten duan astakeririk aundiena.

Bañan aitag neri askatasun oso-osoa utzi zidan. Eta nik, nerezko gogoa izanik, ez nioten liburu oiri pakean utzi irakurri arte. Zeñen ederrak ziran!

Al nituan bertso guziak ikasi ta ni erdi eroturikan utzi niñuten. Eta orain ementzen nago nere denbora guziko zaleturik.

Bilintx eta Otaño eman zizkidan, eta, nere ustez, ontan ere arrazoi sakona zuen. Euskalerrian bi bertsolari orrelakorik ez ote dan izandu antzemana nago.

AGINTARIAK

Arratsalde batez, alkartu da Urnieta'ko gazte-talde bat sagardotegi batean.

Asi ziran bakoitza beren mintzaketan, eta, ari-ari zirala, or sortu dute beren erriko agintariak zein da nor ziran; kontatu zituzten eta ia danak goierriarrak zirala ikusi zuten.

Lizardi baserriko Bartolo Ugalde zanak nere aitari onela dio:

—I, Perrando: Urnieta'n ia danak goierriarrak zeudek buru egiten! Bertsoak jarri bear dizkiek!

Ta nere aitak:

—Ori nai al dek? Laixter egingo diat ba!

Ta, esan da egin, onela jarritako bertsoak dira auek. Nere aitak orduan ogei ta sei urte zituan; berak zionez, ez omen zuan sasoi makala, nik ez nuen ikusi baña. (1)

(1) Bertsoak, Bartolome Ugalde zan orrek eta Alkain'en seme Iñakik osatu dituzte. Bilintxen "Juana Bixenta Olabe"-ren doñuan kantatzen dira.

1/ Bertso berriak,
egi garbiak,
Alkain gaztiak
dira jarriak;
beti gustatzen
zelebrekeriak;
kantatu ditzan
erri guziak,
orra sustraiak:
Goierrri'tikan
ditugu etsaiak,
sosa biltzeko
ai zer itzaiak!

2/ Mediku noblia
Ataun'go umia,
Alzaga'kua
erretoria;
Baliarrain'gua
koajutoria,
zegamatarra
maixu Otaegia;
ta Mimendia, (2)
Legorreta'tik
jo zuben bia;
erabateko
pandillejia!

(2) Mimendia au sekretarioa omen zan.

3/ Guk egiña oik jan,
diegu antzeman,
konseju onak
besteri eman;
nai dutenian
likoria eran,
zeñen diferen-
te bizi geran!
Oiek aukeran;
segituko dute
gaurko tankeran.
Juzga zazute
gezurra ote dan!

4/ Gazte igual zar,
gaude zenbait txar,
izketako bidia
motibuak dakar,
etortze'iralako
zenbait goierriar;
oieiri ere guk
agur egin biar;
bazar da ziar,
erriko jauntxuekin
konpontze'ira azkar;
oker guziya
pobrian bizkar.

5/ Gizon korrituk
ta atrebituk
Goierritikan
etortzen dituk;
jaio ordurako
begi argituk,
gu baño obeto
eskolatze'ituk,
ikusten dituk;
ai beretar tonto
buru aundituk,
gauden bezela
egongo gaituk!

ERRETOREARI

Urte batez sekretarioa palta Urnieta'n. Eta lendik dauden bide ta legez, Errezil'koa tokatzen omen da Urnieta'rako.

Bañan garai artako erretore jauna zanak, bere anai zana presentatu zuan Errezil'koaren aurka. Ta egin zuten erriko etxean botazio bat, eta nere aitaren aldekoak, Errezil'koa nai zutenak alegia, boto batez irabazi zuten; orain ez dakit zenbat boto ziran.

Bañan, ori ala izanik ere, nundik edo andik erretore jauna zanak bere anaia jartzea logratu zuan. Orduan ere, gaurko egunean bezela, bakoitzak berea egiten saiatzen zan, ikusten danez.

Andik urte batzuetara, nere aitak bere erretore jaun orrekin izketaldi bat egitea egokitu zan.

Nere aitak bear zan lekuan ausardia bazuan, gizon guziak bear genduken beze-

la. Ura egiarekin etzan jardungo nunaiko lekutan esaten, bear zan lekuan baizik; eta orrela gertatu zitzaion aldi artan ere erretore jaun orrekin.

Onela bertso baten bidez esan zion esan bear ziona:

Goiarriko Salomon,
au goguan ar zak,
bañan saiatu adi
estuturik galtzak:
ez ituan kunplitu
emandako itzak,
guretzako pakeak,
iretzako salsak;
ura juan uan eta
orain arrapa zak!

Onekin esan nai zion, nere iritzian, gizonak gaizki egiten duanean, beti ta beti alakoxe kezka bat edukitzen duala barrenean, bañan alaz guztiz ere gure aita ongi etortzen zan erretore jaun orrekin. Oso biotz zabalekoa zan.

(1906)

BERTSO BERRIYAK

Ezkontza zibilla jarri zutenean, nere aita aurkalari gogorra izan zan.

Arrazoi zuan ala etzuan, amaika ezagun eztabaidan entzun izan ditut.

Neretzat onek garrantzi bakarra du: gizon bat, jabetzen danean emakume batez, beartua dago ura zaintzera; bes-tela, ez artu jabetasunik. Gizonak itza ematen duanean, gizon bear du. Kargu artzen duanerako, kontuak ongi atera.

Beintzat, orduan ere nere aita zuzenbidekoa izaki. Ta etzuan ondo artzen ezkontza zibill ori.

Urnieta'tik, nere aita ta abar, makiñatxo bat joan zan oñez Donostia'ra, esanaz etzutela aintzat artzen lege ori. (1)

Ta beste leku askotatik ere jendea ugari. Ogei milla esaten zuan gure aitak. Bertsoak berak esaten dute argi ta garbi ori bera.

(1) 1906'garreneko urtezar-bezperan izan zan ori. Bostgarren bertsoak dionez, elur da euriak etzuan iñor ikaratu.

Bertso batean amar mandamentuak jarri zituan, Sinai'ko mendian Moisesi emanak. Eta nere ustez oiek dira mundu onetan diran gauzarik onenak.

Nere aita beti oiek betetzen ikusi nuan alegiñetan. Ta semea ere, askok ez uste arren, emen dabil bide orretan. (2)

1/ Milla bederatzi eun
ta seigarrenian,
Abenduko illaren
ogei t'amarrian,
zezen-plaza berriko
barrunbe ederrian,
ai zenbat jende prestu
ara etorri'an!
Modu jatorrian,
ezta kaltêrrian, (3)
biar-biarrian,
gabiltz indarrian,
bizi nai deunok lengo
lege zarrian.

(2) Bertso-papera, "Imp. y Enc. de S. de Diego.—Eibar" moldiztegi argitaratua, Alza'n, Gazteluene baserrian, Txirrita zanaren illoba dan Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ren eskutik jaso genduan.

Urteen buruan "Argia" aldizkariak ere argitaratu zituan bertso auek, bañan eztakigu zein egunetan. Aitatu-diña dan aldaketakarik ez du, ordea.

(3) kaltêrrian = kaltegarrian.

2/ Zer motibogatikan
Donosti aldera?
Geren sentimentuba
adieraztera;
mudantza berri (y) ori
ankaperatzera,
obrazko ejenplua
askori ematera;
gure etorrera
plaza jatorrera,
ein degun sarrera
fediaz aurrera;
segitzen badiyogu
galduko ez gera.

3/ Askoren iritziyan
giñan ogei milla,
errespeto aundiko
jende umilla;
aberats eta pobre,
gizon da mutilla,
aita baten semiak
euskaldun kuadrilla;
letubaz kartilla,
uraxen zan pilla
onradu ta ixilla,
fededun sotilla,
lengo lege zar santu
on oien billa.

4/ Goiarri ta beretar
fededun bikaña,
jendia portatu da
sekula ez aña;
igartu zala uste
sano egon zaña,
aurrez erakutsiya
degu lengo oña;
relijio fiña,
gurutziaz ziña,
Jesus imajiña
ta Ama Birjiña;
au da Euskal-erriyak
nai dun dotriña.

5/ Ez gaitu ikaratu
elur da euriyak,
aiñ gutxi urrutiko
neke aundiyak,
lorik egin gabeko
gaizki ibilliyak,
gaubian pasatubaz
baso ta mendiyak;
utzi familiyak,
zekor eta beyak,
korajez guztiyak,
legor ta bustiyak;
oik dira egiazko
penitentziyak.

6/ Ortxen ikusi gera
kristau euskaldunak,
senide, adiskide
eta lagunak,
gurasuen legian
bizi nai degunak,
oraindano bezela
gerora're danak;
ari ditun lanak
Aita Santu onak,
Pio amargarrenak,
eman ditu ordenak,
kunplitu itzagun zintzo
arren esanak.

7/ Frantziyatik sartu da
Españira gaitza,
guztiyen kaltekua
oraingo ekaitza;
mudazi nai digute
santuzko biritza,
utziko degulako
ainbestez eliza;
gaizki dira mintza,
askotxo deritza,
obra bezela itza,
jende moldakaitza,
beren mouko lagun
billa dabilta.

8/ Kristau onak geranak
alkargana bildu,
arrazoia bada ta
aguro eldu;
Elizaren etsaiak
nai gaituzte saldu,
kontrariyo gogorrak
zaizkigu azaldu ;
al baida zapaldu,
ez gaitezen galdu;
lege ori bialdu,
Jainkuak nai badu;
neroni irtengo naiz
aurren soldadu!

9/ Baldin jartzen bagera
lege oien mende,
galdu biarrak gera
amaika jende;
zibil ezkontza azkenik
nai da libertade,
aurreratuko dira
ernai ez bagaude;
gaizto-naiez au're
saiatubaz daude,
kristau bagerade
probatzeko gaude;
gogor eifñ biaiegu
beldurrik gabel!

10/ Motibu orrengatik
egin diyen kaso,
degun errespetua
biar preziso;
oik nai duten bezela
ez baita alkaso,
oker aundiyaguak
letozke akaso;
gero zenek jaso?
Guztiyok penoso,
nun-nai estrapozo,
erori igual oso;
orduantxen bai zenbait
lujurioso.

11/ Jaungoikua amatzeko
ez dauka konturik,
artu nai ez duanak
sakramenturik;
nork ezautu du orlako
atarramenturik?
Badutela uste ta
ez da talenturik;
etsaiak loturik,
buru gogorturik,
biziyoiz loiturik, (4)
lendandik oiturik...
modu ortan ez daude
zerun sarturik!

(4) Bertso-paperean: *loturik*.

12/ Zeñen gauza ederra
ori guretzako,
len gaiztuak bagaude
laister ontzeko,
gorputza ondatuta
anima galtzeko,
geren ondorengiak
gaizki ikusteko;
ondo zeñentzako?
Ez iñorentzako,
txiki ta aundientzako
kalte danontzako;
bide bat seguruba
inpernurako.

13/ Guk egite'ez badegu
oraingotik gerra,
ondorenguentzako
ixtillu ederra;
etorri baño leno
alako negarra,
semiak izaten du
aitaren bearra;
utzi bada indarra,
degun lege zarra
ez da bide txarra,
artu gendun zorra,
galdu ez dediñ jende
euskalduntarra.

14/ Gu amarretatikan
bagerade zortzi,
lege ori etzaigunak
ondo iritzi;
oik nai duten moduban
ez baita lizentzi,
aurretik badaukagu
zenbat esperientzi;
ez dezagun etsi,
dotriñ onez jantzi,
zarrari, bai, eutsi,
ez galtzera utzi;
orra zer ein biar dan
nik erakutsi.

15/ Frailiak gobernatu
zuenian Españiya,
izan zan len da orain
beziñ aundiya;
gaiztuak eta alperrak
galdu du guztiya,
onaidi nai irabazi
etsaiak auziya ;
zer dan notiziya
nago ikasiya;
ezin ikusiya
gauza itsusiya;
famili baterako
zer desgraziya!

16/ Persona asko dago
buru-gogortuba
frantzesaren idiak
enreratuba;
katoliko fiñentzat
egiña zeruba,
obratzen badu ondo,
prenda seguruba;
berak aginduba,
bostek aitatuba,
berak maitatuba,
degu aitortuba,
biba Jesukristoren
lege santuba!

17/ Jaunaren agindubak
amar mandamentu,
lenengua guziz gañ
bera amatu;
juramentuik ez egiñ,
jaia zelebratu,
tokatzen dan moduban
gurasua onratu,
ta elkar maitatu,
ez lujuriatu,
iñori ez ostu,
itzegiñaz justu,
besten inbiri gabe
gauden kontentu.

18/ Sinai'ko mendiyen
Moisesi emanak,
kunplitziâtik zintzo
arren esanak;
ez dirade nolana
jarritako ordenak,
zerura juatezkero
egin biar denak;
bestela zer penak
guretzat daudenak!
Izan biar onak,
ala nai du Jaunak;
obligaziyo estubak
dauzka gizonak.

19/ Nere kristau maitiak,
dizuet itzegiñ,
arrazoi dan bezela,
biyotzetik fiñ;
mudantza berri onek
naikua eman du miñ,
asko gaudelako
burutikan ariñ;
saiatu alegiñ,
dakigu zer egiñ,
gaiztuai aldegiñ,
komeni da berdiñ,
gure lengo dotriña
galdu ez dediñ.

20/ Onrak merezi ditu
euskaldun erriyak,
biyotz garbiko jende
maitagarriyak;
okasiyo gogorrak
dira etorriyak,
gizon gaizto batzuek
onera ekarriyak;
istillu gorriyak,
oik berak jarriyak;
fededun urriyak,
gaude igarriyak;
orra Alkain gaztiak
bertso berriyak.

URNIETA'KO MIXIOA (1)

Urte batez, 1913 edo 1914'garrenean, mixioak izan ziran Urnieta'n. Alkain'ek dozena bat bertso jarri zuan; bertso-pa-peretan argitaratu ta zabaldu ziran. Ba-ñan paper bakar bat ere eztegu iñondik eskuratu. Bi bertso auetzaz, Urnieta'ko Aranberri'ko Juan Anjel Izagirre oroitu da:

Otsaillaren oi ta labian
etorri ziran onera,
izan leikien mesederikan
aundiena egitera;
nola zetozen bagendekiyen
da irten giñan bidera,
gaizto geundenak ondutzeko
asmo sendoaz aurrera,
atsegiñ aundiz artu genduben
Aita oien etorrera.

(1) Mixio ta bertso auetzaz etzion Alkain'en semeak ezertxo ere entzun izan bere aita zanari. Orre-gatik, aldi ontan bere adierazpen ederraren paltan gelditu bearrean gera.

Aita Iriarte Intza'tarra da,
Altza'kua Laskibar jauna,
goi-goieneko jaupari eder
euskera garbi daukana;
biotza errukitsu biguña
agertu dute gugana;
aitortutzera irmo juateko
okerra egin dubena,
orretarako damutasuna
dala gauzik biarrena.

(1915)

BERTSO BERRIYAK

1915'garren urtea omen zan. Orduan ere, gaur bezelaxen, baserritarrak alkartu eziñik, eta kaletarrak beti baserritarren kopetako izerdia txupatzen.

Ta urte orretan Donostia'ko Erriko-etxeak jarri zuan petxa berri bat bost xentimo erasteko txantxilla esnari, ta allubrea galerazi zuan beiari jaten emateko, esnari usai txarra ematen ziola-ta.

Bañan nere aitak, ausardia izanik, beste bi lagun arkitu zituan: Urnieta'ko Jose Mari Larburu, «Trankax» esaten ziotena, ta Oiartzun'go errotaria; ez naiz gogoratzen izena nola zuan.

Ta iruren artean erabaki bat artu zuten: *huelga* egin bear zala.

Aurren-aurren Urnieta'ko Agustin Zabala artu zuten laguntzalle. Ta laurak joan

ziran Donostia'ra, ta an arkitu zituzten, Zabala'ren bitartez, Lafitte, Larreta ta Carrillo jaunak.

Oiekin egonik, dei egin zuten baserri-tar guziei Donostia'ko Plaza Gipuzkoa'ra-ko alako egunetan, da bertsoak diotenez bi milla joan ziran.

Orduan artu zuten erabakia esnerik ez eramateko iñork Donostia'ra iru egunean, da eramaten zuenari bide-gurutzetan es-neak bota ta marmita utsarekin etxeratu-ko zirala.

Esan da egin; bai omen ziran, asko ez baña, lenbiziko egunetan joan ziranak, bañan marmita utsarekin danak etxera.

Bañan agintariak jakin zuten su-piztza-lleak nor ziran, ta, igande-goiz batez, zortziretako mezetatik ateratzean, guardizibillak preso artu zuten nere aita. Baita ere bere lagun Larburu edo Trankax ori. Ta Oiartzun'go errotaria ere eraman zuten bere aldetik.

Guardizibillak erdian a r t u r i k, oñez joan omen ziran Urnieta'tik Ondarreta'-ko kartzelaraño.

Bidean zijoazela, or asi du euri-jasa. Guardizibillak beren kaparekin ongi tapaturik zijoazen, bañan gure aita ta be-

re laguna busti-busti egiñik allegatu ziran.

Orduan saltoka ta anka-besoak eragiñaz asi ziran, berotzearren alegia. Ta guardizibillak arriturik.

Bañan nere aitak bereala bertso auk jarri zituan.

Bere lagun bat zan Urnieta'ko Gregorio Etxeberria, «Beltza» esaten ziotena. Pelotari ona zan. Ta nere aita ta biok erroskill saltzen alkarrekin ibillitakoak.

Ta Gregorio Beltza orrek jakin zuanean kartzelan sartu zituztela, or bereala joan da korrika egiñez Ondarreta'ra.

Ta nere aitak, nola bertsoak ordurako jarririk zeuzkan, or eman dizka inprentara eramateko.

Iru egunean egondu ziran kartzelan, bañan irugarren egunerako Gregorio Beltza ori Azpeitia'ko perian zan bertso saltzen; eztakit zenbat esaten zuan, bañan bertso-papel-pilla aundia saldu omen zuan.

Irugarren egunean, Lafitte, Larreta ta Carrillo jaun oien bitartez, atera omen zituzten. Andik irten da aurrena etxera. Ta urrengo egun batean Gregorio Beltza

ta biak Tolosa'ko perira bertso-paper saltzera. Sekulakoak saldu omen zituzten.

Nere aitak ez omen zuan ausardirik bertso saltzen, bañan Gregorio Beltzak erotzen omen zituan kaletarrak ere.

Aita nereak esaten zidan oso arriturik gelditu zala, etzala emen inguruan Gregoriok bezela lagunik maite zuanik.

- 1/ Milla bederatzi eun da
amabostgarrena,
aspaldiko urtietan
degun txarrena;
auzuetatik gerra,
etxekua ez onena,
badirudi mundubak
dubela azkena;
garestitzen jana
da alperren lana;
kentzera al dana
guztiyak gugana;
erruki gutxi dago
nekazaiana.

- 2/ Deia izandu degu
Donostiarako,
negu zitala irauzi
degunerako;
petxa berriyak jarri
dizkigutelako,
au da muturrekua
udaberrirako;
daude janerako,
ez gure onerako
laguntza geroko,
asko biar arako;
basarritarren bizkar
azkenerako.
- 3/ Bi milla basarritar
ortxen gerade juan,
leporaño aspertuta
orainguan;
bigarren bataiua
gure ikulluan,
lenguarekin ondo
ez daudelakuan;
beti au buruan:
kentzia goguan,
oitura lenguan,
jakiña zeguan,
aitzen eztan poltsen bat
degulakuan.

4/ Beti kentzera datoz,
eztu iñork ematen,
amaika atsekabe
degu eramaten;
lenago geiegi ta
petxa berrik aurtan,
errez al da guztiyai
orrela irauten?
Danak guri jaten,
lo eztira egoten,
egin nai ziguten,
argatik gera irten,
norekin jostatzen diran
jakin dezaten.

5/ Dabiltzala esne txarrak,
eldu diyote orri,
noiz irakiten duben
ezin igarri;
guk ere badakigu
oinbesteren berri:
beiak errape motzak,
kalera asko ekarri;
lotsarekin urri,
alakua neurri,
kastiguba jarri,
kartzela eman arri;
ez oien aitzekiyan
gugana etorri.

6/ Mikrobiyo geiago
sortzen dira ontatik,
geiegikuak diran
gaiztakeritik;
batzuak zurrutetik,
ez gutxi ortatik,
Santa Ageda guztiya
bete da erotik;
erariyengatik,
alkol txarretatik,
asko orrengatik,
ez esne guretik;
berak ere egin dute
iya burutik.

7/ Geiago ez ditezen
orretara iritxi,
bein betiko atiak
biaiztegu itxi;
oien ametsa etzan
milla pezta gutxi
patrikadan sartuta
ezpañak igortzi;
nai zuten erantsi,
ordia ez utzi,
diyegu eragotzi,
ortzak erakutsi,
lengo eskubirian
gaitezen bizi.

8/ Basarritarren alde
or jardun zaizkigu,
iztunlari ederrak
badauzkagu:
Lafit eta Larreta,
Carrillo onradu,
lan guztiyak batian
egiñak ditugu:
jende asko bildu,
gerorako zaildu,
txar zeudenak ondu,
petxa danak kendu...
Ai lentxiagotikan
egin bagendu!

9/ Egingo eztala ta
batzuak etxian,
emen gelditu dira
zorigaitzian;
beste batzuak berriz
oriyen atzian,
burubak kuzkurtuta
beldurri-antzian,
aitzeki utsian,
ondo-nai otzian,
sorgiñak baitzian
asiyak eizian...
Zerbait artu biar bazan
juango zian.

10/ Or izandubak gera
alkarren errezka,
ibilli ziradenak
badira igeska,
andikan zeudelako
zerbaiten galdezka,
aurten etsai berriyak,
geiegi iyez ta;
kendutzia pezta,
iñoiz bai errez-ta;
oraiñ dute espa,
bukatu da pesta;
txikiyak alkartzian
aundirik ezta. (1)

11/ Loiola'tik barrena
iru erritatik:
Astiarraga, Ernani,
Urnieta'tik;
Oiartzun, Pasai, Alza,
Lezo ta Errentei'tik,
Andoain da Usurbil,
baita ere Oriyo'tik;
jendia gogotik
zettorren nunaitik,
oñez kamiyotik
gu geren aldetik,
allorbiaren esnia
eranagatik.

(1) Bertso-paperak: *aundirikan*.

12/ Urnieta'n jakiñik
gauza zer nola zan,
ez gabiltzala ikusi
dute jolasan;
erriya biyotz-duna
noren aundiya dan,
etsai guztiyengatik
ematen daki lan;
geienak giñan juan,
al zana eraman,
indar bat geraman,
nori poza ez eman?
Kanpanak asi ziran
Astiarraga'n.

13/ Bost zentimo erasteko
txantxilla esniari,
nik ala entzun niyon
beterinayuari;
ezin ditekiana
nola baitan ori;
gauza sobratutzen da
danian ugari,
orduan aieidi
kentzera juan bedi;
jende biarraidi,
donostiarraidi,
nork sosa aterazi
ango atsuaidi?

14/ Gorbata ta erraztun
oso dotoriak,
botiaz or dabilta
guri loriak;
ez dira sortzen ari
geruago ta obiak,
lanikan egin gabe
jan nai du jendiak;
gureztat legiak
kolkuan gordiak,
itxurik gabiak,
isteko biriak;
jo-azi dizkiyegu
laister goi-biak!

15/ Au batetik bezela
guztiyak diote,
kaleko langillia
dutela maite;
biartsubarentzat au
txit ondo letorke,
basarritarra arin
baldin balegoke;
etsita leudezke,
geiago ez gentzake,
gauza nola merke
iñola ez diteke;
bat esan da bestia
egiten dute.

16/ Beste erridietan
jardun oi da dana,
basarriyari jartzen
erreztasuna;
nekazariya eduki
nai dute goiena;
egiten dubelako
lanikan geiena;
ikusi naiena
ez bire oiena,
dalako aundiyena
gauzik biarrena;
orra zer desberdintza
buruzaiena!

17/ Ia, basarritarrak,
zabaldu begiyak,
batu gaitian danok
txiki ta aundiyak;
ederki eman digu
oraingo aldiyak,
bestela oienak ziran
ikulluko beyak;
gauza agiriyak:
batian nai biyak;
diru-zalegiyak
daude geiegiyak;
bibote-dunak jaten
gaitu guztiyak.

18/ Aurten ezpaldin bada
datorren urtian,
kendu naiko digute
degun artian;
oien uste osua
gugandik jatian,
gu berriz emateko
ez borondatian;
da gure kaltian,
erne egon gaitian,
guztiyok batian,
nor bere atian,
utzi deigutela
pake-pakian.

19/ Ustez egin ziguten
lepotik amarra,
borondatia zegon
naiko legorra;
alperrik izandu da
oien deadarra,
garaiz esnaratuba,
Jaunari eskerra;
ordainduba orra
eman gabe zorra,
esaera zarra,
guztiyaidi parra;
bizi dedilla goien
baserritarra! (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. R. Altuna. — San Se-

bastián”, Donostia’ko Oriamendi baserriko Segundo Kalonje’ren eskutik jaso.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea; ez nuan kontuan artu zeñi jaso nion. Onek amabi bertso bakarrik: 3, 4, 5, 6, 7, 9, 13, 14, 16, 17, 18 ta 19’garrena. Aldaketak: 3/5: bigarren ikustia; 5/8: kalera ekarri; 5/12: kulpa gabe arri; 9/5: beste lagunak berriz; 14/1: Gorbata erraztun; 16/1: Beste naziyuetan; 17/13: orra paperan jarri; 17/14: garbi egiyak; 19/10: emen gabe zorra.

JAI-EGUNAK

Bere alabak, oso pizkorrak beren egin-kizunetan. Bost ni baño zarragoak, eta, gu bi anaiok azi bitartean, amaika lan egin zuten baserrian.

Beti neri gustatzen zait danai berea ematea. Ez askotan bezela egiten deguna, gauzak gaizki ateratzean besteri erruak eta kulpak eman, da askotan norberak izan kulpak guziak. Asko kostatzen zaigu «ni pekatari» esatea.

Bañan bere alabak baserriko lanetan pizkorrak izanik, baita ere pizkorrak ziran igande eta jaietan. Dantzari trebeak ziran benetan, eta Ernani'ra joaten ziran dantzara, ta, jakiña, askotan *Angelus* jota artean etxeratu gabe.

Ta gure aita baserriko bidean egoten zan zai, ta an izaten zuten beren errit-aldia.

Iñork bazituan maite, ark bai maite

zituala bere alabak, bañan erritan oso gogor egiten zien.

Ontan ere nik uste det arrazoi izango zuela nere aitak, gazteai zenbat eta askatasun geiago utzi, orduan da geiago nai izaten dutelako. Gaurko egunean ere ikusten det ederki asko zer pasatzen dan. Gazteari iruditzen zaio etxeratu berandu ta mesede duela, ta bitartean kalte izugarria bere buruarentzat.

Au astelen bateko gertaera da: Madrid'en bizi dan arreba Elisabet genduan sukaldeko lanak egiten zituana. Gure aitak beti ordu berean gosaltzen zuan, bañan bezperan berandu etorriak baldin baziran etxera, urrengo egunean zerbait goizago gosaltzen zuan.

«Mondonga» deitzen zion bere alaba Elisabet orri, ta astelen batez onela galdetzen dio:

—Mondonga, ba al den gosaria?

Ta alabak:

—Ez, aita; oraintxen bialdu det Edurne olio billa, ta pixka batean itxogin zazu.

Ta orduan nere aitak onela dio:

—Oliyua, baliyua, ebanjeliyua, zerriki-

Ilua!!! Jai nazkagarri ori etortzen da, ta emen orain asi ezin jendea lanean! Emen-go okerra au den!

Emen esan nai zuan festak asiera ohea duela bukaera baño.

Ondo gogoan det astelen batez zer esan zidan. Ni beiak biltzen edo jeitzen ari nintzan, ta, oitura nuan bezela, kantuan asi naiz. Ta onela dit aitak:

—I, semea, poza ematen didak orrela kantari sumatzen audanean astelen-goi-zetik.

—Zergatik bada, aita?

—Zergatik galdetzen didak? Bereala esango diat: Astelenetan i kantari astean, aste guzian lana ondo egiten dek; bañan, ez baldin badek kantatzen, iru bat egun bear dituk gutxieneko sendatzeko.

Ontan ere arrazoi aundia zuan. Igan-deetan pillotan ler gaixto egiten nuan, da urrengo egunetarako ezurretako miñez jartzen nintzan, eta sendatu egin bear gorputza ta lanerako gogorik ez ta gauza ere ez.

Bañan bere alabakin ardura geiago izaten zuan gurekin baño.

Bein batean aste-eguneko jaia zan da

ni betiko orduan beiak biltzera. Aita bidean zegoan ordurako bere alaba zai, ta galdetu zidan:

—Arrebak nun dituk?

Nik erantzun nion ez nuala iñor ikusi, ta errita-saioa. Neroni ere ikaratu nintzan, eta, beiak jeizten asi nintzan ordurako, auxen etorri zitzaidan burura:

—Gaur ori kapaz dek jotzeko, eta ikulluko atzeko atetik atera ta etxe atzetik barrena kalera joan bear diat arreba oien bidera, ta Kaliforni'tik barrena ekarri bear dizkiat!

Baita ekarri ere. Zaldundegi'ko etxertzean itxogin nien, eta, alako batez, or datozte korrika beren zapatak eta galtzerdiak eskuetan dituztela, ankutsik alegia. Ta esan nien:

—Aita an zion bidean zigorrarekin! Ta etzekiñat zer duan, bañan oso asarre ikusten diñat! Ni beiak jeizten ari nintzala etorri naun zuengana. Kaliforni'tik joango gaitun!

Eta ala, joan giñan bidexior ortatik, eta sartu giñan etxera ikullu-atzeko atetik, aita konturatu gabe.

Ni asi nintzan berriro beiak jeizten, eta, alako batez, aita, asperturik bidean

itxogiten, or sartu da ikullura ta galde-
tzen dit:

—I, semea: neska zerri oiek noiz eto-
rri dira?

Galdeera onek esan nai du bidea zain-
tzen etzala beti egondu, ta tabernaren
batean baxo-erdiren bat edatera sartua
izango zala. Nik erantzun nion:

—Ez dakit; nik or sentitzen ditut iz-
ketan.

Ta orduan nere aita, ixil-ixilik eta pa-
ketsu, ostera kalera, etxean ikusten zi-
tuanean oso kontentu jartzen baitzan.

Onekin esan nai det zenbateraño mai-
te zituan bere alabak.

TXERRI-TRATUA

Aitak etzuan edateko balio, ta, egun batez, Andoain'go errian or egiten dute alakoxe txolarte goxo bat, ardo-mordo bat edanez, Joakin Arratibel'ek eta abar.

Joakin Arratibel zan ogi-egillea, bañan ganadu-jatenak eta pentsuak ere saltzen zituan. Txerri erosten ere ibiltzen zan. Onekin esan nai det artu-emanketak ugarri zituala, tratantea zala.

Ta agidanean egun artan ere bazuten beren artean traturen bat, eta urrengo eguneko bazkalondoan or etorri da esandako Joakin ori beste bi lagunekin, etxean zeuden bi txerri ikustera. Ta neri galdetu zidaten onela:

—I, Alkain gaztea: nun dituk txerri oiek?

Eta nik batere ezer pentsatu gabe, erakutsi egin, eta gogoratu zitzaidan aitari laguntzera etzerala etorri, eta bezperan apurtxo bat nastu-azi ta gero, berai ko-

meni zitzaien eran antolatu naiko zute-
la txerri oien tratua.

Joakin orrek esan zidan:

—Aitari deitu akiok oietik jaikitze-
ko.

Deitu nion ta aitak onela dit:

—Or al dira zerri oiek? Bada, laixter
bialduko dizkiat etxe aurretikan! Oiek
etzetoztik nere onagatik, baizik berena-
gatik! Esan bear diek ez nagoala ondo.
Bañan leiotik entzungo ditek berea!

Nik, aitak esan bezela, nere egin bea-
rra bete nuan, eta alkarrekin jardun zi-
ran izketan, esanaz alegia nere aitak
eman ziotela itza txerri oien prezioaz, ta
txerri oiek eramateko asmoz iru gizon
oiek.

Bañan alako batez irtetzen da nere
aita zana leiora ta onela kantatzen die
bertsoa, bere bezperako buruko miña-
rekin:

Joakiñ ez nian uste
gizon olakua,
aztuta etzadukat
bartarratsekua:
zikiña goitik bera
botiaz naikua,
ni ez nak gizon egiña
tabernarakua!

Onekin esan nai zion txerri-tratu edo beste ez dirala ostatu eta tabernetan egitekoak, bakoitzak bere lekua baduala.

Iru gizon aiek joan ziran eta nik esan nion aitari:

—Aita, igerri diet parte onarekin etzitala etorriak...

Ta aitak erantzun zidan:

—Ez aiz urruti ibilli, ez!

ANDOAIN'GO MIXIOA

Aita nereak Andoain'go errian bazituan koñadu, lengusu, pariente ta sekulako lagun-arteak. Upelategi edo sagardotegi ori ere bazuten fameli artekoa.

Urte batez, mixio santuak ziran Andoain'en. Ta onela esan zidan:

—Semea, Andoain'en gaur asten dituk mixioak, eta biok joan biar degu.

Ala, berak agindu bezela, egunero joaten giñan Andoain'go mixio orretara.

Antxen bai bazala kaputxino bizar-luze bat, bigarren txandan sermoia egiten zuana, iztun iaioa!

Nik beintzat ari ikasi nion, lenez gañera, «Nere Jesukristo Jauna» esaten. Amaika negar-malko izaten zan, ark gurutze aundi bat eskuetan arturik, otoitz ori esaten zuanean. Ez det beste olakorik arkitu, ez praile, ez apaiz eta ez ka-

putxinoetan. Arek zuan orretan doai berezi bat, danok zerbaitetan deguna.

Mixioa bukatzen zanean, ni, gazte izanik, bereala pelotara. Nere aitak espartziñak erosten zituan mordoka, ta Andoain'go pelota-plazak lurra latza ta espartziñ oiei bereala beren espartzua zabaltzen zitzaien, eta urrengo egunean ostera berriak jantzi bear.

Ta onela igaro zan aste guzia. Bañan iritxi zan etxeko kontuak ateratzeko garaia, ta alpargata-sailla ia joanikan, egu-nero pare bat apurtzen nuan da.

Ikusi zuanean espartziñ-sorta joanikan, or galdetu dit:

—Zer pasatu da espartziñetan?

—Zer pasako da! Kulpa du Andoain'go mixiora ni eramateak! Eraman ez baniñuzun, alpargatak or egongo ziran osorik.

—Motell, geiago ez at eramango iñora, i etxe-kalterako aiz eta!

Aiek parrak egin nituan!

Andik laixter, or alkar topatu dute nere aitak eta kaputxino bizar-luze arek. Nere aita arpegi alaiez, eta or asi zaio prailea zirikaka.

Nere aita, ni bezelaxen, berrogei ta iru urterekin alargundu zan, ura zortzi seme-alabakin, eta ni berriz zazpirekin.

Eta kaputxinoak onela galdetu zion:

—Alkain jauna, zer modu ibiltzen zera laztanketako pentsamentuz?

Nere aitaren erantzuna:

—Beti asmo zuzenez
al dedana egiñez.

(Etzan makala buruz ta mingañez,
naiz eskola asko jakiñ ez!)

Ta urrena onela kantatu zion, berak zuan bizitasunarekin:

Gurutze santuaren
señaleagatik
goizian jaikitzean
egiten det oitik;
indarra ta laguntza
bear dira goitik,
Jaunak gorde nazala
pentsamentu loitik!

MENDIZ-MENDI

Nere aita, alargun gelditurik, igande ta jaietan, gogoak emanda, or asi zan mendiz-mendi, tontorren neurriak artzen.

Ontan ere oso iaioa zan. Artzen zuan bere jakia, zatoa, aizkora txikia, *nivel* bat, *regla* bat, eta or joaten zan mendi-tontor batetik bestera zer alde zegoan ikustera.

Ta, bein batez, diputazioko arkitektuak etxeko sagardotegira etorri ta eztabaida izandu zuten: nere aitak Adarra-mendi berago zegoala Aiako-Arria baño, ta diputazioko arkitektuak ezetz, eta egin zuten apustu apari bana.

Ta gizon jakintsu oiek, ustez asko zekitenak izanik, alaz guztiaz or ibilli ziran andik eta emendik mendi oiek neurzen, eta *regla*, *nivela* ta aizkora txikiarekin ibiltzen zanak arrazoi guzia... Amar

metroren aldea dute Adarra-mendik eta Aiako-Arriak; au altuago.

* * *

Mendiz-mendi ibiltze ori pozgarri baitzuan, askotan Aralar'ko San Migel'era joan izandu zan.

Nere anaia ta biok ere joan giñan aita-reakin San Migel bezpera batez. Uste det amabi urte nituala, urrengo egunean gal-tza luzeak jantzi nituan da.

Aita bi semerekin artu degu Andoañ'en trena Lekunberri'raño; emen sartu-atera bat egin genduan Barriola andoaindarraren ostatuan, agur bat egiteagatik.

Andik Iribas'era, ta emen, gerok genduan zatoa, ardoz bete genduan.

Ta zato ori nik banekian, belar zabal-tzen ari nintzala, mall-azpian segalariak utzita, itaia sartu niola ta zulaturik zegoala.

Egun artan eguraldi otza izan bazan, dana ongi joango zan; bañan eguraldi be-roa izan. Onekin esan nai det: *el que mal anda, mal acaba.*

Nere aitak zato ori besapean zerama-

kiala, zatoari alde egin dio pikeak beroa-
gatik. Ta or asi da ardo-jarioa.

Ta onela dio nere aitak:

—Emen zer pasatzen da, motell? Zatoa-
ri ardoak alde egiten ziok!

Ta nik, pekatari naizela aitorturik, one-
la esan nion:

—Aita, barkatu bearko dit! Etzaitez ja-
rri gizatxartuta! Lengoan Manuel segala-
riak mall azpian utzirik zeukan, da nik,
belar zabaltzen ari nintzala, ez jakiñean
itaia sartu nion; da ori da guzi-guzia.

Orduan, errit-aldi bat emanik, len baño
azkarrago oinkada egiten genduan. Bañan
errit-aldi ori entzun arren, aita ta bi se-
meok oso adiskide ta jator igaro gendu-
an eguna.

Bañan San Migel'eko apaizari ardoa
erosi bear izan genion, zatokoa bidean
ziaro ustuzalako.

* * *

Buruntza-mendi egalean daukagun Az-
korte izeneko Santo Kristoaren ermita
orretan, Maiatzaren iruan festa egiten de-
gu, eta egiten genduan lenago ere.

Lenbiziko eguna, bere izenekoa, Urnie-ta'koak, mendi onunztik geranok, ospa-tzen degu. Bañan Lasarte ta Oria'ko al-dekoak urrengo igandez egiten dute be-ren jai-aldia.

Urte batez ara zer gertatu zan. Ekaitz beltzeko eguna zan. Kazkabarra, aize otza, trumoia ta abar, izugarrizko eguraldi la-tza.

Nere aita ta biok beti beren jai-aldi or-tan izaten giñan, Lasarte ta Oria ortan oso jende jatorra dalako.

Amarretan izendatua zan meza nagusia, ta abeslariak oso onak, beti bezela, La-sarte ta Oria'tik etorriak. Oso meza na-gusi ederra egiten zan.

Bañan urte arretan ez dakit zein apaiz etortzekoa zan meza ematera, bañan no-la amaikak baziran eta ura palta baitzan, danok arriturik geunden nola etzan ager-tu apaizarik meza ematera.

Nere aitak, lasai-lasai, onela dio jen-deari:

—Zuek bearbada oso arriturik egongo zerate. Ez dakigu bidean apaiz orrek min artu badu ere. Alaz guztiaz meza ematen ez al dezute ikasi?

Ta erantzuna izandu zuan:

—Guk ez beintzat!

Ta bereala nere aitak esan zien:

—Kanpoan zaudetenak, danok barrura sartu, ta nik emango det meza!

Danok, arriturik, ixil-ixilik belaunikatu giñan, zer ikusi bear ote genduan, da one-la dio nere aitak aldare aurretik:

—G u r u t z e santuaren señaleagatik...
Bost misterioko errosarioa...

Ta esan zuan:

—Auxen da gaurko meza!

Ta berak esan da guk erantzun, ala errezatu genduan.

ZENBAIT GERTAERA TA BERTSO

Beste egun batez zugaitz-sagar-gerri bati krakak kentzen ari zitzaion. Ez det go-goan zer tresna zuan eskuan, bañan onela dio bere artean:

—Gure Jainkoak, Jaungoiko izanik, gizona orrelako egin zian bada! Jaio ezin, azi ezin eta bizi ezin!

Ni izan banintzan Jaungoikoa,
ez nian egingo orrelakoa.
Nik egingo nian lanik gabekoa!
Esan dît naikoa!

Eta ni ingurutik entzuten; eta onela galdetzen diot:

—Aita, zer esakerak ziran oiek?

Eta bereala erantzuna:

—Or al intzan zerri ori?

* * *

Nere aitak eta beste iru lagunek ollo-jate bat egin zuten, eta ni taldeka-taldeka sagardo ateratzen eta serbitzen.

Orduan txandaka-txandaka errondak ordaindu egiten ziran. Baso bakoitza xox bana izaten zan, eta gure aitari bere txanda eldu zitzaionean, or erori zaio mai azpira xox bat, eta onela dit:

—Semea, nik baño gerri bigunagoak edukiko dituk eta arrapa zak xox ori, gutxiri begiratzen ez dionak asko izaten zalla dik eta.

Orrela, altxa nion xox ori mai azpitik.

Ala, gero amaitu zutenean ollo-jate ori, asi ziran beren alkarteko izketaldi eta txolartean.

Gure aita oso iaioa zan zugaitz edo arbolak aldatzen, eta garai artan zugaitz-sagarrak oso ugari aldatzen ari giñan, bñan besteren lurrean...

Beren txolarte artan lagun aietako bategen onela dio:

—I, Perrando: i ari aiz, bada, orrenbeste sagar-arbol aldatzen ire baserriko nagusiaren baimenik gabe...

Ta erantzuna bereala gure aitarena:

—Aizak i: danak pentsatuak zeuzkat

nik; bañan aldatzen baditut, bateonbarentzako izango dituk, eta, ez baditut aldatzen, iñorentzako ez.

Eta orduan laister ixildu zan ustez jakintsua zana.

* * *

Andoaiñ'en beste gertaera bat izan zuala esaten zidan nere aitak.

Bertsolari zan bezela, aitari egun arretan berandu egin zitzaion taberna batean. Bertso bota ta bertso bota ari omen ziran.

Azkenean, nagusiak elduka ta bultzaka atera zituan kanpora. Ta nere aitak orduan bertso au kantatu zion:

Nagusiak esan dit
etxera juateko,
ixilik egon bazan
etzuan kalteko;
amaika egi eder
nago esateko:
bi anka falta ditu
asto izateko!

* * *

Errosarioa esaten genduan apaldu ondoren. Geienetan aitak berak errezatzen zuan, ta, aita etzanean, arreba Solek.

Bañan, asko ta askotan, gu danok egunez nekaturik eta erdi lo arturik gure errosario santu ori izaten zan.

Goiz batez aitari onela diot:

—Aita, errosario apal ondoko ori etzait batere pozgarri.

—Zergatik ba?

—Ia danok erdi lotan egoten gera, ta erdi lotan egonda ez diogu ematen berak merezi duan arretarik.

—*Bien*, motell! Ik atera dizkiak eltzetik babak! Emendik aurrera bazkal ondoan errezatuko diagu!

Ta ala egiten genduan andik aurrera. Uste det erri guzian gu bakarrik izango giñala bazkal ondoan errosarioa esaten genduanok.

Berak errezatzen zuan beti; bost misteriokoa. Bañan bai azkar! Sei bat minutuan bukatzen zuan bere San Migel goi-aingeru, Aita San Roke ta abar goratuz eta gañerako eraskiñakin.

Ta gaur nik uste det leku askotan ez egunez ta ez gauez, ta bildur naiz aurki

baterez; bañan jarrai bear litzaioke, sende artean batasun izugarria izaten dako.

* * *

Ni gazte nintzala, ortxen amalau bat urte nitualarik, Urnieta'ko Galarraga deritzaion etxean egiten giñuzen sagardoak etxerako. Ta azken-azkenekoak, naiko sagar izanik ere, erdiak ura botata egiten giñuzen.

Galarraga'k etxe atzean zuan erreka, ta bi balde arturik, ur-karraio aritzen giñan. Bost gurdi sagarrentzat bost gurdi ura igo bear tolarera, milla ta bosteun litro alegia.

Egun batez, besoak ia etenik eta amorraririk, onela esan nion aitari:

—Aita, orrenbeste sagar badegu, ta errekatikan ur-karraio onela ibiltzea, etzait gauza egokia iruditzen. Emen urik gabe egin da gero, nai duanak Akan'go iturriko ura bota dio!

Ta onela erantzun zidan:

—Ori dek, semea, sekulan eman deken arrazoirik aundiena! Aurten izango dek azkeneko urtea ur ematen diogula.

Ta gure etxean, andik aurrera, ur-tanto bat ere etzuan sagardoak izaten. Ta nai zuanak Akan'go iturritik ekarrita botatzen zion.

* * *

Nere osaba, aitaren koñadua, gure etxera etorri zan bein batez, askotan bezela. Ta guk sagardoak egiten giñun, ta urte batez oso onak ziran.

Nik upel bakoitzetik basoa beterik ematen nion sagardoa, ta aita nerea begiz begira zegoan nola edaten zuan.

Baso bakoitzeko bere ezpañak atsegin-duaz, onela esaten zion nere aita zanari:

—Perrando, zein baño zein zeudek obeak! Ire semeak bazedukak bere doai berezia!

Ta nere aitaren erantzuna:

—I, Narziso: ik dan-danak onak dituk, eta orrek esan nai dik: *De Durango todo bueno.*

Ta laixter ixildu zan nere osaba zana.

(Onelakua zan nere aita,
ark bazekien ezpañetako gaita!)

* * *

Zarautz'en, 1935'ngo urtean Basarriren omenaldian, Zubimendi'ren puntua eta nere aitaren erantzuna:

Au bai izango dala
zuretzako zalla...

Arrapatu nai nuke
lenbiziko malla,
nik bill-bill egiñikan
dadukat ukalla,
ezin eraman duena
izurra dedilla!

Biamamonean nik esan nion:

—Aita, ori etzenduan esan bear. «Or konpon dedilla» esan bear zenduan.

Ta erantzuna onela eman zidan:

—Bai, motell! Arrazoi dek! Gero damutan egon niñukan!

* * *

Jakiña, gerratean ainbeste negar ikusirik eta danai «Ai, ama!» entzunik, gero neronek ere ori bera esaten nuan: «Ai, ama!»

Gañera, bost urte nitualarik gelditu nintzan amatxorik gabe, ta etzan arritzekoa.

Bañan egun batez au gertatu zan: Biok iñoxtor-meta egiten ari giñan, eta oraintxen ia bukaturikan or erori naiz nere meta ta guzi lurrera, ta orduan, minapurtxo bat arturik, jakiña zer esango nuan:

—Ai, ama! Ai, ama! Ai, ama!

Ta auskalo zenbat aldiz esan ere. Lurretik altxa nintzanean, onela dit:

—I, semea: ik beti ta beti «Ai, ama!» esaten ari aiz, eta ez al dek aitik?

Nik ori entzunik, laixter joan ziran nere ipurdiko miñak. Aiek ziran nere al-gara atsegiñak! Eta erantzun nion:

—Aita, barkatu nere utsegiñak
eta gaizki itzegiñak,
zergatik iñor ez gera berdiñak,
ontaz aurrera egingo ditut alegiñak.

Andik aurrera aita ta ama esaten saiatzen nintzan.

Onekin esan nai det ontan ere arrazoi aundi bat eman zuela, aitarik gabe amarik ez baita.

* * *

Biok gela batean lo egiten genduan, eta gau batez or sekulako ollo-karraxiak.

Jantzi galtzak eta artu det eizerako eskopeta ta ankutsik atera naiz atarira. Elur-lapatsa egiña zan, bañan ala ere korrika lapur arrapatzera Akan'ko iturri ta erre kara, lapurrari aurea artzera.

Ta, an nagola zai, alako batez or dorkit gizasemezko bat elur txuriaren gainean. Erne jarri ta or ezagutu det nere aita dala. Orduan nik pentsamentua:

—Ez dik esango, ez, kobardea naizenik!

Gero esan nion:

—Alto!

Aita orduan, olloa bezela, karraxika, ta orduan nik:

—Aita, Iñaki naiz!

—Zerria! I al intzan? Nundik?

—Txutxo'ko errekatik barrena!

—Motell, nik ez at sentitu noiz altxa aizen oietik!

Eta joan oster a etxera, ta arratoia txi-toak jan naiean eta kolka izan karraxika...

LENENGO BERTSOLARI-EGUNA (1)

(1935'ngo Ilbeltzaren 20'an)

Donostia'n lendabiziko bertsolari-txapelketa antolatu zutenean, orduko agintari jaunak nere aita joatea gogotik nai zuten, eta ala eskatu zioten.

Ta etxean bere lapizarekin an jarduten zan, burura etortzen zitzaion ura paretan apuntatu eziñik, ordurako eskuan dardar aundia zuen da.

(1) Donostia'ko Kursalean egin zan. Txapelketa jator bat izan zan. Kantatu zutenak, onako bertsolari auek izan ziran: Txirrita, Zepai, Txapel, Basarri, Abarrategi, Lujanbio, Telleri-Txiki, Nekazabal, Mintegi, Erauskin, Juan eta Pello Zabaleta anaiak, Lexo, Sorozabal, Etxeberria, Uriarte ta Alkain.

Alkain laugarren gelditu zan. Basarrik eraman zuan txapela.

Epai-maiekoak, onako jaun auek: Jose Ariztimuño "Aitzol", Toribio Alzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona apaiza, Jose Zubimendi ta Txomin Olano.

Nik orduan, ura ikusirik, esan nion:

—Aita, emen gauza bat ikusten det: lendabiziko bertso ori ez daukazu nere ustez ongi. Onela egingo degu: nik lendabizikoa antolatuko dizut euskera garbiz, eta bigarrena zuk neri esan da nik idatziko dizut.

Alaxen egin genduan.

Joan zan Donosti'ra txapelketa ortara, ta bi bertso oiek oso txalotuak izan ziran. Onela ziran:

Donosti'ra zertara
gu olerkariyak?
Artu diradelako
asmo berriyak.
Saio bat egiteko
gaude etorriyak,
geuren azkartasunak
dauzkagu ekarriyak;
gure neurlariyak
or daude jarriyak,
burudun argiyak,
euskotar garbiyak;
seme onak badauzka
Euskalerriyak!

Saio bat egiteko
bear da arreta,
suzko maitetasunez
nator erreta;
eguna nere mende,
badadukat beta,
zerbait dagon lekuan
alaia kopeta;
gaurko sariketa
ezta berriketa;
artu emanketa,
zer Ameriketa?
Joan nai nuke sakela
ondo beteta!

* * *

Gero, Zubimendi jaunak jarritako puntuetan, oso egoki osatu zituan bertsoak:

Noiztikan asi zera
bertsoak kantatzen?

Nere antzeko lagunakin
nintzanên juntatzen;
beti kantatuz nintzan
euskaraz mintzatzen,
eta emen oraintxe
asi naiz aspertzen.

Miñikan eman gabe
nik nai nuke esan...

Begira daukagunak
sinista dezan;
udaran ta neguan,
alde guzietan,
toriadore txarra
etzerade izan. (2)

* * *

Bañan azkenik gertatu zitzaion Zepai bertsolariarekin kantatu bearra. Zepaik uste det nagusiarena egin bear zuela, ta nere aitak morroiarena.

Maiko jaunak jarri zieten doñua Otaño'ren «Itxu aurreko» ori. Aurrenetik egoki asi ziran, bañan Zepaik, berak ere aitortzen zuan, boz batean ongiena egiten zuan, eta boz ortara aldatu zan. Ta nere aitak artan jarraitu zion, juraduak jarritakoari eutsi gabe.

Ni ere antxen negoen entzuten, da, ori ikusi nuanean, bereala esan nion nere buruari:

(2) Txapelketa ontako zenbait bertso, "Bertsolari-guduak" deritzaion liburuan agertu ziran. Bi auek liburu ortatik artu ditugu.

—Oraintxen galdu dik nere aitak txapela!

Ta ez nintzan nere buruz oso urruti ibilli. Ain ongi juraduak jarritako oñarriak bete izan bazituan, nik uste det bera izango zala txapeldun, arrazoiez eta etorriz bera sendoena izandu zan da.

Zepaik eta nere aitak kantatutako bi bertso:

Zep: Lenago gazte xamarra ziñan,
pixkat ein dezu zartzera,
eta aditu izan detanez
gizon motela etzera.
Nik zuri lana agindu eta
etzazu egin atzera,
nagusi ona izango naiz ni
ondo portatzen bazera,
lenguan baiño goizago etorri
urrena gure etxera.

Alk: Zure bostortzai etzaio juten (3)
aspaldi ontan erdoirik,
debalde ere ez nuke artuko
asko moduzko pioirik.

(3) Bi bertso auek ere, "Bertsolari-guduak" deritzaion liburutik artu ditugu.

Liburu onek *yuten* dio, ta geroxeago *yanen*. Dударик ez da Alkain'ek etzuala orrela esango.

Zer janen paltan naukazu eta
zutik or nabil doi-doirik,
ta sukaldean ez da azaltzen
len antzekoen urdairik;
zuk ez daukazu billaturikan
ni bezelako morroirik.

≡ * *

Eguardian etxera etorri nintzan bazkal-
tzera. Ta, bazkaldu ondoren, lendabiziko
trena artu ta ostera Donostia'ra.

Ta bertsolariak eta abar bazkaltzen ari
ziran lekura iritxirikan, ni aita zegoan
tokira alderatu nintzan.

Ta an zan *dentista* jaun bat, Ernando-
rena izena zuana, garai artan oso gizon
egokia ta jatorra zana.

Ta jaun au, ikusirik bazkaldu ta ka-
fea artu ta gero ere iñor etzala bertso-
tan asten, nere aita toriatzen asi zan,
esanaz bera dentista ona zala; ta, nere
aitak nola ortzak joanak zeuzkan ordu-
rako, esaten zion berri-berriak ongi ta
merke jarriko zizkala.

Bañan Ernandorena jaun orrek nai
zuan bertsolariak kantuan astea, da, nere
aitaren fintasuna jakiñikan, bazekian ura
asiko zala.

Orduan nere aitak, bere txapel txikia
erantzirik, onela kantatu zion:

Onela ibiltzen naiz
noizik bakoitzian,
bildur danak utzita
nator etsian;
gordetzeko asmuan
ez negon atzian,
bertsoko gauza auek
gogoratutzian;
ortzak jarritzian,
zarrak berritzian,
aurtengo Ilbeltzian,
sasoi etortzian,
orduan egingo det
taju-antzian!

* * *

Egun artan iñulabarrez nere aita errira
etorri zanean, bere lagunak tentaka onela
asi zitzaizkion:

—I, Perrando, nola kantatu dituk len-
biziko bertsoak?

Ta gizajoak sano-sano, ni entzuten na-
goala, kantatu zizkien lendabiziko bi ber-
tsoak. Lenengoa zan bezela, bañan biga-
rrengoa zan bezela ez. Ta nik esan nion:

—Aita, ori ez dezu orrela kantatu.

Ta bereala esan zidan:

—I *escolástica* aiz ta arrazoi izango dek!

Ta onela bukatu zan egun ura.

TXIRRITAREN OMENALDIA

Guda aurrean zan. Uste det zala uda-berri-inguruan (1). Txirrita zanari Erren-deri'ko errian omenaldi bat egin zitzaion.

Nere aitak illabetez aurretik ango gizon antolatzaileai agindu aita ta semea joango giñala omenaldi artara; nik egun batzuetara jakin nuen nola agindu zien, bañan neri aitak ez esaten. Au bai izan zala gogoangarria!

Allegatu da eguna ta neri ezer esan gabe. Ni, bezperan ganadu-jatenak eta lan guziak eginda, goiz-goizetik joateko erne nengoan, eta mezetarako apaintzen bera zegoan oiaren ondoan ari nintzala, neronek galdetu bear izan nion:

—Aita, nik joan bear al det Errenteri'ra?

—Zer bada? Jakindu al dek biok joango giñala?

(1) 1936/III/22'an, ain zuzen.

Ta erantzun nion:

—Bai, aita; amabost bat egun badira jakindu nuela...

Ta berak orduan:

—Ni gazte bat artu ta Txirritaren etxera niek aurrena, ta andik Errenteri'ra meza nagusia entzutera, ta ik nai dekena egin zak!

Orduan nik onela erantzun nion:

—Aita, zuk erakutsia det agintzen dana zor izaten dala, ta joan egingo naiz!

Eta berak:

—Joan adi, bada, bañan jende orrek biok alkarrekin bertsotan jarriko gatxiek, eta nik badakit zeñen nerbiosoa naizen. Bañan joan adi!

Ta ala joan nintzan omenaldi artara.

Aiek meza nagusitik irtetzerako ni an nintzan, bañan beste bertsolari guziak ni baño lenago sartu ziran antzokian. Andik laister joan naiz sartzeko asmoz, eta atezai zegoanak ez ditela utziko sartzen sarrerik gabe.

Esaten nion Urnieta'ko Alkain'en semea nintzala ta bertsotara joan nintzala, bañan sarrera artu bear izandu nuan.

Ala beintzat sartuta besteakin batera, nere txartela eskuan detela, Basarri eta Txapelen ondoan jarri nintzan, nere artean esanaz:

—Laister ostera kobratu bear dît txartel auxen!

Eta bai kobratu ere ederki! Bi-lau pezeta zan sarrera, ta atezai arek berak bost eman zizkidan bertsoan asi egin da bereala. Oso gizon prestua izandu zan gizarajoa. Oraindik ez dakit bizi dan. Naia-go nuke bizi balitz; agurtuko nuke poz-pozik.

Goizeko saioa egiñik, gero bazkaltzera bigarren mallera edo pisura. Oso leku egokia zan. Gutxienez izango giñan eun lagun. Biñipin jan da sabelak edo urdallak ase genitunean, iñortxo ere etzan asten bertsoan. Ta alako batez Monzon jaurak onela esan zidan:

—Alkain gaztea, oso pozgarri izango nuke zu zedorri aurren asiko baziña.

Ta ala, orduan nere aldamenen neukan Uztapide jatorrari esan nion:

—Zu, Uztapide; ekingo al diegu Txirrita ta Basarriri?

Ta erantzuna:

—Bai pozik! Asi zaitez azkar!

Eta bai asi ere ni bereala. Laurok oso saio jatorra egin genduan, bañan arri-turik gelditu nintzan Uztapiderekin. Ura etorria zeukan! Bera ongiena jardun zan.

Ondoren, beste bertsolariak kantatu zuten bana edo bina. Arratsaldean pillota-lekuan partidua zan, eta gu bertsolariak txapelketa-antzera jardun giñan, ta une edo tarte orretan or jarri gaituzte aita ta semea erdi-erdian, berak joaterako esan bezela. Emen zan koxka!

Bear dan bezela agurtu jendea ta aitari tokatzen gaia artzea, ta zer artuko, ta ni ibiltzen nintzan neskatxa gai artu. Bera gure aurrean zegoan bere lagun bategin, eta bere gogozkoa ez izan nunbait ta onela kantatu zidan aitak:

Aizu, semea, jakiña nago
ni gauzatxo bat zuria,
neri esan gabe zuk or daukazu
ederki asko gordia;
ez al dakizu zeleteketan
egoten dala jendia?
Neskatx beltz batez zuk arturikan
omen daukazu biria.

Orduan neskatxa orrek bere lagunarekin laister aldegin zuen zegoan leku artatikan. Alde batera tamaletan gelditu nintzan, beste aldera ez. Artean ezpaitzan ezer, bakarrik bi edo iru aldiz bere etxera lagundu niola. Gañera oso andereño pizkorra zan. Ark bai artzen ziola neurria mutillari!

Orain nere erantzuna:

Aita nerea, etzazu esan
beñe olako itzikan,
zuri egia nik esateko
bate ez daukat lotsikan;
neska gaxoa bialdu dezu
pozik zegon lekutikan,
etzaukazuen nere ustetan
ori esan biarrikan.

Orduan ango txaloak! Oraindik ematen ari naiz orduko txalo-otsari eskerrak. Gero banituan inguruan andereño ugari. Lau edo bost baziran trena artzera lagundu zidatenak. Uste det geienak musu eman zidatela, ta gaur berriz iñork ez dit ematen. *Cuando mucho cuando nada...*

Neskatxa ura gure baserriaren aurretik ia egunero igarotzen zan astoarekin, da urrengo egunean ere ala igaro zan.

Nere aitak, bezperan okerra egiña damuturik, onela esan zion:

—Aizan, Bernarda: atzokoa barka idan!

—Ez al zenduan beste konturik?

—An egonan nere aurrean, da semea itzaz gustatzen ta aita ere bai! Ta bertso-tan sakea izaten den txarrena, ta atzo txarra tokatu zitzadanan!

Ta andik aurrera biak ondo etortzen ziran.

TXAPELKETAREN BIARAMONA

Beste aldi batean San Pedroren eguna zan, da *Gure Etxea*'ko Manuel Sagardia'ren bitartez Arrasate edo Mondragoi'ra joan nintzan bertsolari-txapelketa batera. Nere aitak ere bazekian joatekoa nintzala.

Ta joan nintzan trenean erri ortara, ondo gogoan det gañera zein da zeñekin.

Aietako bat jauntxoa zan. Bera zan bere denboran sagardo asko edana, ta onela dit:

—Zu, Alkain: sagardoaren izaera joanda!

Ta nik esan nion:

—Nola liteke zuk, orrenbeste jakinda, ori esatea? Nik badakit, bada, bigar goizean Donostia'n bertan arkituko nituzke la eun lagun, gosaltzeko sagardorik ezpaluteke, gosaldutuenik esango ez lutekenak; eta zuk ori esan?

Gero esan nion:

—Oraindik sagardoa ezagutuko det, bizirik banaiz, ardoa baño garestiago, arbolik iñork ez lengoak zaindu ta ez berri-rik aldatzen ez dualako.

Orduan ala esan da gero ala etorri nere burubidea. Orrela da mundua: danok ez berdin ikusten etorkizuna, ta etorkizunak dauka garrantzirik aundiena.

Oiek orrela esanik, uste gabean or atera det ango lenbiziko txapelketa ta sariketa. Etorri naiz Lasarte'ra ta bazekiten, allegatzerako, Manuel Sagardia'ren ostatuan ibiltzen ziran nere lagunak; eta, jakiña, geren pozarekin, geienaren oitura dan bezela, parranda egin genduen.

Onekin esan nai det berandu bildu gilañala norbere etxetara. Ni beintzat goizeko laurak inguruan oieratu nintzan, ez oso orditua, bañan naikua.

Ta nere emazte zanak etzidan erritik eman; andik ekarri nituan txanponak eman nizkalako izango zan noski.

Ganadu-biltzeak, gure etxean apopillo bizi zan Juan Bautista Urretabizkaia'k egiten zituan, eta nere emazte zanari trenera berak astoarekin eramaten zizkan

bere esne ta abar. Orrela ibiltzen giñan garai arretan.

Ni, berriz, lotan lasai, ta une batez or sumatu det aita zana bere alaba batekin izketan. Esateko oitura aundia zuen eta onela dio alabari neregatik:

—Etzekiñat: gure mutil zerri ori goizeko laurak inguruan sartua den etxera, ta belatzean an zion belarra ebakitzeko, orrelako eguraldia zion da. Ez ote da altxako oietik?

Ala beiñepein oiek danak entzunik, jai-ki oietik eta beko sotoan espartziñak jazen ari nintzala, or etorri ta bizkarretik elduaz esaten dit:

—Ai semea, semea! Nik aitortzen dît abildadea danetan askoz geiago dekela nik baño. Ori bazekiat, bañan ire abildade oiek ez ditek batere balio azaltzen ez badituk!

Nik, ori entzunik:

—Tira, tira, aita! Oraintxen bertan noa belar ori ebakitzera, ta artu sardea zabal-tzeko.

Ta berak:

—Zerri orrek dagoen bero onekin joan bear al dek?

—Aita, errexean edozeñek ebakitzen du belarra; zallean du doaia, ta goazen!

Ulertu zidan zer esan nai nion. Nik sega ta arek sardea artuta, joan gera biok belatze ortara ta asi naiz. Ango nere karkaxak eta eztulak! Onela dit aitak:

—Aizak, semea: oiek atzoko ordoiak dituk. Nik ere izan izandu nizkian gaztetan, bañan i ni baño gogorragoa aiz. Jo zak, pasako zaizkik eta!

Ta bai pasa ere. Andik aurrera nere sasoa! Urteroko salla zan da sekulan baño lenago ebaki nuan, eta aitari gelditu zitzaizkan gutxienean amar bat malla zabaltzeko. Ta aitari esan nion:

—Aita, joan etxera ta Migeltxori esan marmita txikian Akan'go iturritik ura ekartzeko, ta nere emazteak emango dizu berri on bat.

Artean ez baitzekian nere bezperako berri. Ta ni etxera allegatzen da nere semea urarekin. Sagardotegiko eskalletan jarri naiz exerita ur ori edaten, eta or datorkit aita ondora, periodikua eskuetan duela, poz-pozik esanaz:

—Motellak, zerria aiz! Lenago zertarako ez dirak esan?

Ta nik erantzun nion:

—Bañan, aita, nik esan banizun, belarra ebakitzeko egongo zan, eta ebakia dago ta gañera zabaldua.

—Bai, motell, ortan arrazoi dek! Nik esaten detanean i bezelakorik ez dala inguru auetan, ez nabillek urruti, ez!

Gero esan nion:

—Aita, bazkalondoan danon artean belarrak jira. Nekaturik nago ta eguzkiaren sarreran txorrokak egiten lagunduko dizuet. Eta gero Lasarte'ra joan bear det.

Eta alaxen izan zan pake-pakean, ez gaur askotan begiak atera bearrean gabiltzan bezela.

«NAIGABE BAKARRA»

Aita nereak, zartzera zijoalarik, buruzbide aundiak izaten zituan. Gizagajoa bere gisa jarduten zan izketan. Zenbait bertso, nik entzunik, paperetan jarri nizkan.

Asko ta asko gorderik neuzkan, bañan gero joan ziraden aizeak orbela eramaten duan bezela.

Onela esaten zidan aitak:

—Ni zartu nak, ta ik neri parra egiten didak; bañan erorri zartzean, i ere nere berdiña izango aiz, edo okerragoa.

Onelako esaera asko zituan; bañan, egun batez, or entzun diot, sagastian barrrena zebillela, bertso lerdun auxen:

Alkain zarrak dauka
naigabe bakarra:
ezin igarorikan
dabil malkarra,
burutik ia juan
len zuan kalparra,
anketik trinketu ta
makurtu bizkarra,
azala lakarra,
eztarri zakarra;
dadukaten arra
izugarri txarra;
zartzia iñorentzat
ez da ederra!

IÑAKI ALKAIN

(1958)

BASERRITARRAK, ERNE! (1)

1/ Milla bederatzi eun da
berroi ta emezortzi,
Urriyaren illa da,
gañera zortzi;
baserritarrak biar
milla pazientzi,
leku ederretara
ez dira iritxi;
nai det erakutsi
nere kontzientzi;
al baditut jantzi,
ez beintzat erantzi;
beren eskubideai
nai diet eutsi.

(1) Bertso-papera: "Nueva Imprenta—Tel. 58775
— Lasarte". Ez nuan kontuan artu nori jaso nion.

2/ Basarri asko ta asko
dijuaz galdutzen,
eta beste batzuek
dira bildurtzen;
gizon askori berriz
etzaie iruditzen;
errex dala atxurra
lurrian astintzen;
or dabilz mintzatzen,
saltsa batzuk jartzen,
itxuraz pintatzen,
danak engañatzen;
lapitzarekin errez
dute kontatzen.

3/ Maixtar etxe geienak
iya txit galdurik,
errenta aundi eta
ez da dudarik;
askok ez du oldozten
ezer olakorik,
«sano bizitzeko ezta
au bezelakorik»;
arto ta garirik
dutenik jaberik
ez dute usterik,
txit daude gazterik;
oiekin ez daukagu
itza besterik.

4/ Gure Euskalerrriya
degu mendi utsa,
gañera lurrez degu
oso txit otza;
nunbaitetikan eldu
giñaden ununtza,
zeñek egin ziguen
onera laguntza?
Galdera zorrotza!
Izanik biyotza,
lur onaren antza,
bazan esperantza;
geroztik arri tartez
emen gabiltza.

5/ Olaxen bizi gera,
au da komeriya!
Ez pensatu danikan
txorakeriya,
galdutzen baldin bada
gure baserriya,
ez da gañera urruti,
juanik dago iya;
oraintxen erdiya,
danak gutxi piya,
biotzez egiya,
au da alderdiya...
Mugitzeko norabait
bada garaya!

6/ Alaz guztiyaz ere
kontribuziyuak,
emen aztuta daude
barkaziyuak;
kulpak omen ditula
Diputaziyuak,
bestetan ez daudela
oinbeste iyuak;
gu, emen jayuak,
ez gaude yayuak,
alperrik sayuak,
beintzat ez iyuak;
bertan ote dauzkagu
lagun pilluak?

7/ Onekin amaitzen da
nere bertso-sorta,
ta barkatu zazute
badegu falta;
baserriko bizitza
olaxen dago-ta,
gero ta beltzagua
nor bere kopeta;
arrazoi degu-ta,
bestela galduta,
naiko lan elduta,
ez jarri salduta...
Ikasi bertso auek
ongi letuta!

Alkain'dar Iñakik

BERTSO BERRIYAK
MAITASUNARI JARRIYAK (1)

Doñua: Otaño Ameriketara

1/ Mundu ontan gauz asko
okertu dirade,
maitasunik badagon
egiten det galde;
gure artian amaika
biyotz txar bagaude,
burniya baño ere
gogorrago daude,
ta gaitz orri ezin zaio
iñundikan alde.

2/ Gaurko mundu onetan
ikusten diranak,
ezin leizke sinistu
nola gauden danak;
begiratuta gaude
itxuretik onak,
itzak ederrarekin
apal da legunak;
gero saltzen ditugu
anai ta lagunak.

(2) Bertso-papera: "Nueva Imprenta—Tel. 58775
— Lasarte". Ez nuan kontuan artu nori jaso nion.

3/ Bat gertatzen bazaigu
bizi-modun beran,
gaurko jendiarekin
nola jarri goran?
Oraindik jexten geio
ia asten geran,
beretzako itz txarrak,
ontatik aukeran...
Ez dakit maitasuna
nun bizi ote dan!

4/ Bestea beratutzen
ari dan gizona,
ez gero uste bera
danikan zuzena;
besteri erantsi nai
berak dadukana,
auxen da bakarrikan
egiten duena;
gaitza au izatia da
mundun dan txarrena.

5/ Askok poza artzen du
bat gaizki ikusita,
ustez gelditutzen da
goraño azita;
alaz guztiaz ere
ezin da bizi-ta,
zer igaro lezaion
ez du ikasita,
gero bera gertatzen
beraño jetxita.

6/ Munduko izaera
askotan da motza,
beste batzutan berriz
aundiya bizitza;
bizi-modu luzia
geienian latza;
naiz gaur izanagatik
naiko aberatsa,
etorri lezaioke
nunaitik mudantza.

7/ Ongi da izatia
apal ta atsegiña
edoziñen aurrian
ondo itzegiña;
al badu zuzendurik
besten utsegiña,
besteak goratutzen
saia alegiña;
au dala nik uste det
Jaunaren dotriña.

8/ Maitasuna orregatik
da biarrezkua,
au duenak badauka
aberats naikua;
ez duenak au berriz
galdu leike ua,
beretzako kaltia,
—amaitzera nua—
onengatikan dago
gaur gaizki mundua.

Urnieta'n 1959'go urtean

BERTSO BERRIYAK
EUSKERARI JARRIYAK

Doñua: Otaño Ameriketara

- 1/ Anai biyotzekuak,
ondo entzun emen:
batzuak euskaldunak
onak izan arren,
gure euskerarekin
nola ote gauden,
adirazi nai nuke
guziya lenbailen,
ia pixka-pixka bat
esnatzen geraden.

- 2/ Gure sorrera degu
oso antziñekua,
artian zala beintzat
Aita Jangoikua,
Jesukristo il zala
da geroztikua;
odola euskalduna
da aspaldikua,
oraintxen nastu zaigu
nunaitik naikua.

- 3/ Odolez nastutzia
ez asko arritu,
mundu onek olako
naspillak baditu;
bañan naiz dala dana
nastuta gelditu,
nik zer esan nai dedan,
anaiak, aditu:
izkuntza galdutziak
ni nau naigabetu.
- 4/ Euskaldunak onera,
euskaldun aruntza,
geren buruk goratzen
ementxen gabiltza,
esanik badegula
seme onen antza;
mingañez gera baña
nun degu egintza?
Onak izanda iya
jun zaigu izkuntza!
- 5/ Dakizkigunak dira
sei izkuntza mundun,
ta oien tartekua
gure euskera gendun;
beste guziyak gora,
guria txit illun;
ez odol da ez izkuntza...
zer gerade ordun?
Egiya aitortutzen
ikasi dezagun!

- 6/ Izkuntza ez diranak
asko daude baña,
danetatik egiña
daukagu España;
Galici, Asturias,
au ainbeste ez baña,
Alicante, Valenci,
or da Cataluña...
beren izketa egiten
dute alajaña!
- 7/ Guk berriz aitzakiya
aguro besteri,
ematen diyogula
Castilla aldiari;
gure gezur aundi bat
beste ez da ori,
egin biar deguna
mintzatu ugari,
maitasunik badegu
jarrai euskerari!
- 8/ Izkuntza galdutzia
da negargarriya,
iya ontantxen dago
gaur Euskalerriya;
balegoke emen bertan
esku bat garbiya...
Oso txarrak gerala
nago igarriya,
bestela nola galdu
gure orma-arriya?

9/ Iru lekutan dago
bere *ikastola*,
nunbait egotia ere
ongarri degula;
bañan guk, euskaldunak,
nola edo ala
aintzat artzen dutela
jakiñikan ola,
bertan jartzia ere
obe gendukela.

10/ Guk naiko bagenduke
ori jartzen utzi,
anai biyotzekuak,
biar zaio eutsi;
zaiñ asko ez dauzka bañan
berriyak erantsi
ziaro eroritzen
etzaiogun utzi,
zer egin biar degun
orra erakutsi.

Urnieta'n 1959'go urtean (1)

Alkain'dar Iñakik

(1) Bertso-papera: "Nueva Imprenta—Tel. 58775
— Lasarte", Iñaki Alkain'ek berak emana.

BERTSO BERRIYAK
URNIETA'KO ZILLERI-MENDIEN
GAIAN JARRIAK

1/ Gure Zilleri-mendik
al guaz saltzera?
Aurretikan kontuak
ongi atera!
Ez dakit zertarako
ori egitera,
ez balegoke beste
ezerren aukera;
diru-zale gera,
euskaldunen era,
baguaz galtzera,
ez beintzat eltzera,
besteren eskuetan
danak jartzera.

2/ Erriko semientzat
utziyak izanik,
jaiotzekuak asko
daude oraindik;
nola saldu litezken
ezin ulertu nik,
bañan ez det ikusten
ondoren gauz onik;
bada zer esanik,
ez dago gizonik,
miña artzen duanik,
sentidu dutenik;
ixtimatzen ez degu
guria izanik.

3/ Mendiyak jarri giñun
txit oso ederki,
piñua aldatuaz
bertan galanki;
jela batzuk eginda
ondatau bai aurki,
bestela ondo giñan,
ez bildur eduki;
orain erabaki
saltzia egoki,
zenbatez nork daki?
Diruaz galanki...
Gastatzeko ona da
Alkain Iñaki.

4/ Nola gañera saldu
daukagu jakiña,
badegu paper zar bat
gaizki egiña;
gazteari dirua
kentzeko alajaña,
gure buru aundiyak
nun dabilta, baña?
Auxen da zikiña,
ez da atsegiña,
degu utsegiña,
astindu mingaña,
bestela etorriko da
onen ordaña.

5/ Emezortzi urterekin
sariya artzen asi,
bitartian ez al du
ezer nagusi?
Guk, zarrak, berriz orain
mendik saldu-azi,
gaztiaren gogorik
ez degu ikusi;
au dago itsusi,
al dute merezi?
Askoren malezi,
azkar galerazi...
Komeni zaigunakin
nai degu bizi.

6/ Batzuek mutil zarrak,
bestiak alargunak,
eta beste batzuek
dira aitonak,
aita batzuek berriz
seme eztutenak;
nor beriari eltzen
baditugu lanak;
zeiñ geraden onak?
Berdintsuak danak,
ikusten diranak,
biñipiñ geienak,
bañan lege batzuek
daude zuzenak.

7/ Gauza ola dago ta
gu nola konpondu?
Al balitzake alkarri
begiya kendu!
Oker dagueen gauza
guk nola zuzendu?
Ikasi biarrian
lenguak atzendu;
ez gerade ondu,
batzuek gallendu,
izanikan mundu
txartuta berandu;
azkenian gazteaidi
diyegu eldu.

8/ Gazteak zer kulpa du
izana jaiotza?
Guk eginda etorriya
dago ununtza;
gaxo izan ezkeru
gurasuan lotsa,
ez badu dirurikan
oso kontu motza;
guk jarri mudantza,
lege bat zorrotza,
degu gaixto-antza,
au da esperantza...
Landare berriyari
beti laguntza!

9/ Arriturikan nago
gizon askorekin,
eta geien-geiena
jauntxo batekin;
ez dakit zer igaro
zaiguan orrekin,
lenago ibiliyak
gera alkarrekin;
orain ola ekin
gazte-kontuakin,
ez arrazoiakin,
nai badute jakin...
Euskera gora leike
olakuakin!

10/ Zilleriya saldutzen
oso zail dagola,
ezer dudarik gabe
jakin zagula;
asi geradelako
nola edo ala
alkarri pegatuaz,
zer daukagu ola?
Saltzekua bêla,
alaxen gendula,
naiko lan badala,
salduko eztala...
Berriz ere lan egin
obe degula!

Alkain'dar Iñakik (1)

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Lasarte'ko Sasueta-aundi baserriko Migel Zuaznabar'-gandik.

XENPELAR ZANARI

1964'ngo Uztaillaren 23'an, bertsolari-txapelketa bat izan zan Errenteria'n. Berderatzi bertsolari agertu ziran; oietako bat, Iñaki Alkain.

Errenteria'n baitziran, Xenpelarri buruz ere kantatu bear izan zuten. Gai ori oso bere gustokoa izan zuan Iñakik, eta arratsaldean paper bat eman zidan. Zer ote zan, eta bertso auk. Bazkal-ondoan tabernan bertan idatziak omen zituan.

- 1/ Esan digute: orain bertsoak
Xenpelar jauna orrentzat;
onen esanak biotz-biotzez
artuak baiditut aintzat,
mundu guzian zuti-zutiñik
daudela iruditzen zat,
zergatik onek maitetasuna
baizuan pakiarentzat.

2/ Olerki batzuk jarri zituen
pake-zale ta egoki,
geroztik nola ote gabiltzan
Jainkoak bakarrik daki;
arren esanak baztarrera utzi,
guda zikiña galanki...
ura añeko gizona orain
nun ote liteke arki?

3/ Bere olerki batez onela
esaten zuan guzia,
gudarentzako beti bazuan
gorroto, ezin ikusia;
andik emendik ark pakerako
zuan bere iritzia,
esaten zuan guda-zaleai
azkar kentzeko bizia.

4/ Euskalerrria maitea zuen,
beti egiñikan dedar,
beragatikan ark egin zuan
biotzez amaika negar;
esaten zuen: «Oraindik ere
atzera ez degu juan bear!»,
orrelakoxe euskaldun jator
izandu gendun Xenpelar.

* * *

- 1/ Mendietan badaude
majiña bat bildots
antxen erdi-goseak,
larreak ere motz;
janari gutxirekin
an egon bear otz,
bizkarra alakua ta
arpegia zorrotz.

- 2/ Gaur ementxen nago ni
erri Errenteri'n,
poz-poz oraintxen nai det
bertsoetan egin;
ezer esan gabetan
ez det nai aldegin,
beti erri au baida
neretzat atsegin,
goratzea nai nuke
gaurkoan alegin.

- 3/ Emendikan juan ziran
Erroma'ra zear,
gudaritza egitera
ainbat seme bakar;
artzen etzutelako
anguakin alkar,
azkenerako berriz
gelditurik zakar;
bañan guda-zalea
etzuten Xenpelar.

4/ Emengo jendea da
lendik oso piña,
Euskalerrigandik
lan asko egiña;
biar zan garaiean
gudari bikaña,
bazirudin au zala
euskaldunen zaña,
orregatik jartzen det
gaur emen apaña.

5/ Beñere, al bada, ez da
asarretu bear,
naiz ibiliagatik
oker eta zear,
berriz ere alkarri
egitikan dear;
olakoxia beti
izan zan Xenpelar.

AITA ZANARI (1)

1/ Ara azkenik nere aitari
olerkik eta bertsuak;
arren esanak geienak beintzat
nik ongi ditut jasuak,
beti zutikan egongo dira
bere arrazoi sutsuak,
alai ta garbi esaten zitun
itzez doai maitetsuak...
Gizonarentzat beti onerako
ark egindako pausuak.

2/ Esaten zidan: «Aizak, semea,
entzun zak nere esana:
jakin bear dek ire aita dala
iretzat lagun onena;
ezer okerrik gertatzen bada
lasai etorri nigana,
semea, aitak lagunduko dik
zerbait zuzentzen al dana;
kezkarik gabe etorri adi,
bazadukat maitasuna.»

(1) Iñakik liburu ontarako jarritako bertsoak.

- 3/ Onelakoxe arrazoi sakon
zitian aitak neretzat,
orregatikan orain semeak
esker ugarik beretzat;
gero ta geio artutzen ditut
arren esanak nik aintzat,
obeagorik ez ote dagon
orrela iduritzen zat,
oroipen auek maitetasunez
nik jartzen ditut arrentzat.
- 4/ Edozein lekun egonagatik
txukuna zuan mingaña,
bere esate jatorrarekin
arrapaturikan gaña;
iñongo lekun etzan izandu
besten gaizki itzegiña,
oker txiki bat egin ezker
azkar barkatzeko baña...
Obe genduke gaurko egunean
orrelakoak bagiña!
- 5/ Azkenekoaz bukatutzen det
biotz maitasun betea,
zauden lekutik barka zaidazu,
nere aitatxo maitea;
aundi xamarra izan liteke
orain nere esatea:
gertako balitz zu inpernutan
oker batez egotea,
alaz guztiaz nik naiko nuke
bixita bat egitea!

NERE ERRIARI (1)

1/ Ara, Urnieta, erri maitea,
ara emen zure semea,
bañan ez nator beratutzera,
goratutzera ordea;
gorantza auxen aspalditikan
zuretzat naukan gordea,
izan ere zu nola baizeran
nere biotzan jabea.

2/ Nere erri maite, zu goratzeko
nik beti banuan naia,
zuretzat beti arkitutzen det
bertsoetarako gaia;
beti neretzat nola baitzeran
garbia eta alaia,
zu goratzeko oraintxen neri
iritxi baizat garaia.

(1) Iñakik liburu ontarako jarritako bertsoak.

- 3/ Orregatikan etzaitez jarri
zure kopeta beztuta,
biotz zabalak duena arrek
berandurikan eztu-ta;
jarri zaitea arpegi alaiz
biotza dana poztuta,
Alkain Iñaki ez baida egon
sekulan zutzaz aztuta.
- 4/ Zu nere erri zerana ori
garai batean mingarri,
etsai batzuek zure ingurura
ziradelako etorri;
aiek nai zuten zu utzitzea
danen gañez lotsagarri,
gaizki egiten duena bera
gelditzen da parragarri.
- 5/ Zure izaera garai batean
oso izandu zan latza,
gogoratzeaz oraintxen ere
ia ematen dit lotsa;
zerez zu nola beti ziñaden
lurtaldeaz aberatsa,
etsai txar oiek ibiltzen ziran
zuri samintzen biotza.

6/ Su ta garretan gelditu ziñan,
nik jakiñikan, bi aldiz,
lengo aitonak esanik beintzat
beren izaera garbiz;
bañan osterá berritu ziñan
zuzenbideaz zu berriz,
berriro ere laixter dirade
osterá zure inbiriz.

7/ Lenago ere erri onetan
gizon jatorrak izanik,
etsai guziak etzuten egin
danak berak nai zutenik;
erri guzia kixkali eta
etzuten egin gauz onik,
alperrik galtzen ibiltzen dana
andik ez dago gizonik.

8/ Urnieta onek nola zituan
aberastasun aundiak,
Olazar eta Olaberria'n
zitun burnizko mendiak;
etziradela ostutakuak,
danak zituan beriak,
orregatikan gerra ematen
zioten orri jendiak.

9/ Alaz guztiaz orduko aitonak
piztu zutela osteâ,
berriro ere pentsatu zuten
garbi lanean astea;
alaz guztiaz bigarren txandan
berdintsu gerra jartzeâ,
esan nai du onek langilleari
izardia txupatzeâ.

10/ Orduan ere etsaia etzan
gure onerako ari,
izaten zitun itzak ederrak
eta ipuiak ugari;
bañan alperrak besterik eztu:
asmoa txarra besteri;
beti kentzera dijua ura
lana egiten duanari.

11/ Ai, nere erri, anaikor zaitut
ia, bai, orregatikan,
beti azaldu zeradelako
sua dagon lekutikan;
errexetikan azkar piztutzen
onek eztu ardurikan,
doai berezik nere iritziz
agertzea zalletikan.


12/ Pozgarri det nik gauza al dana
bere lekuan jartzea,
ta nai nuke nik erri onentxen
mantalpean bizitzea;
oraintxen auxen etorri baizait
nere mingañan ertzeâ:
geiago etsairik izaten badu
ez det egingo atzeâ.

13/ Nere erri onen izakerakin
pozturik daukat biotza,
nola ez duan berak izandu
beñere kobarde-antza;
neregatikan etzazu izan
ezertan ere zalantza,
beti ta beti andik-emendik
egingo dizut laguntza.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I.
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan.
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat.
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun!
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak.
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. *F. Imaz*: Bertso guziak.
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak.
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak.
29. *T. Alzaga*: Burruntziya.
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria.
31. *M. Soroa*: Baratzan.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin.

39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. *Bertsolari-txapelketa* (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA